

# ZERTORIU

Pierre Corneille-ren tragedia  
Jean-Baptiste Orpuztanek euskarara itzulirik.

\*

\*\*\*

\*

## IRAKURTZALEARI

Mota huntako poemak ongi helaraz dezazketen goxagailuak ezkitzuela bila tragedia huntan: eztuzue ez amodioko xamurtasunik, ez pasionetako haserretzerik, ez erakustaldi ospatsurik, ez ixtorio hunkigarririk aurkituko. Baderraket bizkitartean eztela gustagaitza izan eta izen omendunen gaitasunak, haien xedetako handitasunak eta nortasun batzuen berriak ordaindu dutela garazia horien eskasa. Gaia xoila da 'ta gertakari ezagunen andanakoa, horietan ezpaitzaiku deusen aldatzea haizu, erregelan arautzeko behar-beharrak aroen eta lekuen hertsatzera bortxatzen gituen neurrian baizik. Gaiak ezpaitaut emazterik hornitu, asmatzeari hel egin behar ukan daukot hetarik bien sartzeko, atxikia izan nauen ixtorioko egiekin aski onhargarriak bat eta bertzea. Bata aro hartan bizi izana da: Pompeiuren emazte lehena da, Emilia haren emaztearen alabarekin ezkontzeaz Zilarekin elgartasunean sartzeko haizatu zuena. Pompeiuren biziaz idatzia duten guzien lekukotasunetik ezkontza hauste hori segurra da, bana hetarik batek eztauku ikasten zer bilakatu zen Antiztia deritzoten zorigaitzekoa, Gironako apezpiku Espainiar batek Ariztia deitzen duela ezpada, hautetsi dutan izena beharrira eztiago bezala. Haien ixilak utzi baitaut hari gerizaleku baten egiteko libertate osoa, uste ukan dut enaukola bat itxura gehiagorekin hautatzen ahal aidoztatua zutenen etsaien etxean baizik: are gehiago itxura du gerizaleku horrek eragin egiazko bat emaiten baitu Zertoriuren gana ekharrarazten dauzkotan Erromako handienen eskutitzez, eta Perpenak Pompeiuren eskuetan ezarri zituenez, hetaz oharrarazten dutan bezala egin baitzuen hunek. Bertze emaztea ene gogoko ideia huts bat da, ixtorioan oinarri zenbait ukan gabe eztena alta. Luzitaniarrek Afrikatik Zertoriu Zilaren kontra bere buruzagi izaiteko deitu zutela ikasten dauku; bana errepublikan ala monarkian zirenez ezterrauku. Haier erregina baten emaita higungarri dagien deus ezta beraz, eta enezakeen Biriaturena bano odol handiago batetik jalgiaz, haren izena ekharrarazten baitaukot, Espainiak Erroma-

tarren kontra ezarria ukan duen gizon handiena, 'ta herrialde horietan Zertoriuk bano lehen haier ihardukia dauen bakarra. Alabana etzen errege, bana bazuen haien burupe guzia, 'ta Erromak haren gudukatzeko igorri zituen pretore 'ta konsulek, usu garhaitu zituenek, aski estimatu zuten harekin bakeko antolamendu batzuen egiteko, etsai nagusi 'ta zuzen batekin bezala. Haren heriotzea hemen aiphatzen dutana bano hiruretan hogeitatu zortzi urte lehenago gertatu zen, hala nola nun hemen mintzarazten dutan erregina hunen aitasa edo aitabilasa izana ahal baitzen.

K. Zerbiliu konsulaz garhaitua izan zen, eta ez Brutuez, prinzesa horri erran-arazten daukote bezala, aiphatu berria dutan apezpiku espainiar hortan fidatuz, bere ondotik hutsean ezarri bainau. Hitz baten aldatzeaz zuzentzeko errexa da hartaz mintzotzen neurthitz bakar hortan, eta hunela berrezarri behar denean:

*Eta Zerbiliuren izar nagusituak.*

(neurt. 439.)

Ontsa badakit Zila, poema huntan hainbat aiphatzen dutana, Zertoriu bano sei urte lehenago hila zela; bana zorroztasunean hartzeko haizu da egun bakoiztasuneko batasunaren egitekotan aroen hertsitzea, 'ta moldeko ezinik ezten ber, sei egunez gertarazten ahal dut, berdin sei orenez, sei urtetan gertatua dena. Hori jarririk Zila Zertoriu bano lehen hil dadin eztu deusek debekatzen, hemen diotanetik deus barreatu gabe, diktaturari haren etsi emaitako berriaren ekhartzeko, Arkaz Erromatik joan ondoan hil izan ahal denaz geroz: Zertoriu erhaina den ordu berean badagiena. Badiot gainera aroen ordenuari jarraikitze oharle aski ximenak izan behar dugun arren, halere, mintzarazten ditugunak aski ezagunak diren ber, eta badituzten elgarrekin egiteko batzu xuritzeko, ezkira haien biziko iraupenari hain zuzenki lotzera bortxatuak. Zertoriu erhain zenean Zila hila zen, bana mirakulurik gabe bizitzen ahal zen orano; 'ta ixtorioko ezagutza gaingiroko bat baizik ohiki ez tuen entzulea, bekan da egiaren itxura duenetik baztertzen ezten horrelako luzatze batez ofensatzen. Enuke alta errextasun hortaz orotako erregela bat

egin nahi, berexkuntza zenbait ezarri gabe. Zilaren heriotzeak etzauen Espainian Zertoriuren egitekoer aldamenik batere ekharri, 'ta hain munta gutikoa izan zizakon nun neke baita, gizandi horren biziaren irakurtzean Plutarken baitan, lehenik zein den hil ohartzea, bertzela jakina ezpada. Ezperdin da Estatuak aurdikitzen, alderdiak suntsitzen dituzten eta egitekoer itxura berri bat demaieten gauzez, Pompeiurena izana den bezala, entzuleria osoa jazarraraz bailezake egile baten kontra Kaezarrenaren ondotik haren ezartzeko ozartasuna balu. Bertzela ere Pompeiuk eta bertze buruzagi erromatarrek Zertoriuren kontra jarraikitzen zuten gerla behar zen nolazpait margotu 'ta desenkusatu, zergatik hartan hisitzen zen hartzea aski neke baita, tiranoaren etsi emanaz eta heriotzeaz berjarria zela iduri baitzuen errepublikak. Badateke Erroman berbiziara zuen haren gogo nagusinahia etzela harekin hil, eta Pompeiu 'ta bertze ainitz buruzagi erromatarrek, ariman haren lekuaren hartzeko xedetan trabarik gabe, Zertoriu hortan poxelu indardun bat izan lizaien beldurtu zirela, ala beti aberriarentzat bazuen amodioaz, ala bere omenaren handitasunaz eta bere egintzetako mereximenduaz, hautua emanaraziko baitzaukoten, errepublikako inharrosaldi handi horrek nagusirik gabe ez egon ahal izaiteko heinean ezarria ukan balu. Zuen handinahiko bekaiztasun segetuzko hortaz ez Pompeiuren desohoratzeko, geroztik hain goraki dirdiratzen ikusi dena eregiten baitzuen ordukoz, eta gerla horren arrazoin egiazkoa baitzen behar bada, Zilaren bizi-araztea egokiago zela zinetsi nahi ukan dut, haren nagusigoko zuzengabearen ezartzeko bortiztasunaren gain. Hori gainera baliatu dut bere Ariztiaren aldera atxikarazten daukotan maitasun azkar hartako eraginaren gelditzeko, beldurtzeko deusik ukana ezpalu Zilaren aldetik, hunen izen hastiagarri bana omendunak baitemaie phizu handi bat tragedia huntako arima guzia badagiten politikako arrazoiner.

Pompeiu berak badiduri armadako jeneral baten zuhurtziatik apur bat baztertzen dela, noiz ere, Zertoriuri fidatuz hunekin mintzatzera jiten denean kontrako alderdiaren buruzagia

nagusi oso den hiri batean, bana bihoztunetik bihoztunera 'ta Erromatarretik Erromatarrerako fidanza da, zimarku batez ez beldurtzeko eskubide zenbait bademakona hoin gizon handiaren aldetik. Ezta hori eztauetalakotz bada kritikarier onhartu nahi eztaukola bere segurtasunari aski behatu, bana hari itzuraldi hori eginarazi gabe lekuko batasunaren atxikitzea ezina zizatan, erregelako erakaitzaren gain eman behar dena, nihaurenaren bano gehiago, ontsa ikusia baitut. Ezpadaukozu bere emaztearen ikusteko zuen ezin egonari barkatu nahi, hartaz hainbat hartua egiten baitut orano, eta bertze senar bat har zezan beldurrari, harentzat zituen xeden ez jakinean, mintzaldi hortan hartu den atseginari eginen daukozu, bai sortzeaz bai izpirituaz gorteko lehenbiziko batzuek antzerti osoa bezainbat estimatu baitute. Etzira hortako Ariztotez gezurtatua izanen, antzokian arrazoingabeko gauzak ezar daiten batzuetan onhartzen baitu, ongi hartuak izanen direlako iduripena badenean, eta poemak hortik ukanen dituen abantailak garazia hori merezituko duketelako esperanza.

\*

### *JOKARIAK*

ZERTORIU, Mariuren alderdiko jenerala Espainian.

PERPENA, Zertoriuren ordaria.

AUFIDE, Zertoriuren armadako tribuna.

POMPEIU, Zilaren alderdiko jenerala.

ARIZTIA, Pompeiuren emaztea.

BIRIATE, orai Portugalara den Luzitaniako erregina,.

THAMINA, Biriateren ohorezko anderea.

KELZU, Pompeiuren alderdiko tribuna.

ARKAZ, Ariztiaren anaia Ariztiuren liberatua.

Jokalekua Nertobrigan da, Aragonako hirian Zertoriuk hartua zuenean, orai Katalayud. (\*)

## EGITALDI LEHENA

*Agerraldi I: Perpena, Aufide.*

### PERPENA

Nahasmendu hau nundik heldu zait, Aufide, 'ta zer nahi du  
 Erran bihotzak hoin guti menpera ditzan neure xedeak?  
 Nahigabe tradimenduak dematan laztak arrazoina  
 Itxaro dutan guziaren aldera jazarrarazten daur.  
 Eta gaizkintzan oinarritu handitasun horren iduri  
 Osoan itsusiak, orai artio sobera bainau horren  
 Ideiak lausengatua, neure baitan eztu laguntzeko  
 Besorik aurkitzen. Bihotza hertsatzen dautan gutiziak  
 Ohorezko dirdira falsuz edertzen du bere lan beltza;  
 Ene menperatzeko haren indar uzkurrer, auherretan  
 Daut arimak ehun urrikien uztarri bat inharrosi:  
 Arima hunek bere baitan bapatez zatitu delarik  
 Urrikien gatina gaizki hautsi hori berriz hartzen du,  
**Eta Zertoriuren zorion ustegabeak gelditzen**  
**Hari bihotzaren zilatzera prestik bazagon eskua.**

### AUFIDE

Bertute minbera bateko zein ordugaitz ahalgegarrik  
 Kontra dagio lausengu zaizun itxaropen eder horri?  
 Eta, Jauna, lehenbiziko lerroaren egarria noiz  
 Danik da beldur odol gaixtotik apur baten ixurtzeko?  
 Errankizun handi hau ahatzi duzu: herriko gerla bat  
 Gaizkintza guzien erreinu dela 'ta gaizkintzak zuzenbide  
 Osoa duen leku guzietan erreinuko, bakarrik  
 Ogengabe herabea dela gutietsi behar dena.  
 Ohore 'ta bertute dira izen batzu trufagarriak;  
 Mariuk eta Karbonek etzuten arrangura bat ere  
 Ukan; Zilak ehoiz ...

### PERPENA

Ez Zilak ez Mariuk

Ehoiz eztute bere garhaituen odola gupidetsi:  
 Aldizkatuz, garhaipenak, haien inguruan eroturik  
 Haserrea bulzatua daue barbarotasunerano,  
 Aldizkatuz sarraskiak eta herritik urrun bahitzek  
 Haien etsaigoer Erroma sakrifikatua dauete.  
 Bana nagusi batzu dematzaguten liskar odoltsuek  
 Egin dituzte hiltzaleak, traditzalerik egin gabe:  
 Eztute behin ere baietsi haserre zabalenetan  
 Bakar batek ixur zezan alderdi berearen odola,  
 Eta batean ez bertzean eztu batek ausartziarik  
 Hartu nagusiaren hiltzeko, igaiteko haren orde.

#### AUFIDE

Hortan etsi bademazu beraz: etzirea bada bekaitz  
 Buruzagi xipiago baten ikurriner jarraitzeko?  
 Obeditu behar bada, gehiago gerlarik ez egin:  
 Har dezagun lur guziak hartua duen uztarri bera.  
 Zergatik bada hoinbertze lanjer? hoinbertze gudu zergatik?  
 Zerbitzatu nahi bada, Zilak besoak ezkaintzen dauzku.  
 Erromatar bizia gaitz da gizon batetik lege hartuz  
 Bana tiranotik tirano, Erroman bizitzea hobe.

#### PERPENA

Horrela mintzatzean ikus ezak hobeki zer diokan.  
 Libertateak hemen hats har dezakek bederen orano:  
 Erroman ezteuseratua duten gur' Errepublikaren  
 Zatirik noblerena hemen berriz loratzen ikusten da,  
 Eta bahitu aiphatuener ideki gerizaleku hunek  
 Zenatuaren ondarkin baliiodunenak ditik bildu.  
 Hortarik ditik Zertoriuk herrialde hauk gobernatzan,  
 Zergara bortxatzen, hauen printzerentzat legeak dagitza,  
 Badatxikalarik gur' Erromatarren ondarra nor bere gain.  
 Bana den alderdi orok nahi duelakotz manatzale,  
 Orotan laguna duen ustegabeko zorion horrek,  
 Espainiako jendalden ondoan bildu dikan izena...

#### AUFIDE

Ha! bildua duen izen horrek dautzu zorion soberaz  
 Zure fortuna hausten eta ohorea ebasten dautzu:  
 Etzinuke hortaz dudatzerik, orhoitean baduzun ber  
 Zur' armada harenarekin batzera joan zen egun hura.  
 Orduan...

### PERPENA

Etzakala gaizta manatzeak enetzat izan  
 Behar zuelako orhoitzapen hain samina: gainditua  
 Nian noblezian bezainbat armada haren ainitzean,  
 Ber' ahularen azpian erortzera zioan ni gabe.  
 Aldiz agertu zen bezain laster ikusi nian nihauren  
 Kampamendua jendez hustua harenaren betetzeko,  
 Arranoak ikusi neure soldadoez atheraturik  
 Haren menean jartzeko hegaldan haren phezoinetara,  
 Eta mugimendu ahalgegarria margoztatu nahiz  
 Jarraiki nindeien errabian, eta haiekin han jarri.  
 Ordukotz arima harturik ukana zautan bekaiztasun  
 Hura handitu zen egunez egun handinahiak ere  
 Bano gehiago manatzen duen jaiduraren azpian:  
 Maite dut Biriarte 'ta Luzitaniarren erregina  
 Handi bezain soberano aiphatuarekin ezkontzeak  
 Haren menekoen gainean itzul ahal lezatake  
 Hark eremaiten dautan botere bete neuren gainean.  
 Bana bera ondikotz! horren izen handiaz xoratua  
 Horren omenak dagien hots zoridunari lotzen zakok,  
 Bitartean sorgor hark ukan dezaken gustagarriari  
 Berak galdegiten eztikan bihotz hori dautak lapurtzen;  
 Haren izar etsaiaren indarra hainbatean bortitza  
 Duk nun ustegabetan ere orotan ebasten bainaik,  
 Eta deramatarik aldi guzietz neure ongia  
 Berak deus jakin gabe oro baitagi harentzat izenak.  
 Badakit maita dezakela bere garra gordez guri,  
 Bana neur' arima erakutsi nahi daukot gauza hortan  
 Eta uzten ahal badaut nahitzen dutan tronu hori,

Neure nahi beteginer herra sakrifikatuko dauet,  
 Eta hartzen duen lerroa eztiak gutiziatuko  
 Jende barbaro hortan hoinbertze baldinbadaut segurtatzen.  
 Artha gureaz moldatua, ezku gureaz ikasia  
 Gure larderiapean Erromatar bilakatua duk.

## AUFIDE

Munta hoin handikoak egiten direnean xede batzu  
 Maitasuneko nahikariak sartzen direa zalantzan?  
 Eta gauza horiek azkenean hoin ezti bazaizkizu  
 Biriarte, hura hilik, ez ote da zurea izanen?

## PERPENA

Ba, bana hiltze horren jarraipenak demat eragospena.  
 Haren zoria lekua bezain ontsa ukanen ote dut?  
 Laguntzarekin batean irabazi dauenek fidanza  
 Obedituz eni hari nola duketea ber boztasun?  
 Eta haren sare desohorez moztuaz mendekatzeko  
 Etutea Pompeiuren bandera ukanen aitzinean?

## AUFIDE

Beldurregi zira 'ta berantegi: **zure aphairuan da**  
**Eta zure manuz haren desteinua gau huntan hausten.**  
 Baketaldiak armada baserrira banakatua du,  
 Eta lagundua gituen guzia zuk duzu manatzen.  
 Xede hoin handi hortan gertaldiak irri egiten dauku,  
 Bana beso hoin handia ezta gure bihar artio baizik:  
 Ukhaldia hausten baduzu seinaleak aitzinazkizu,  
 Gal ezazu Zertoriu edo gal izkizu lagunak.  
 Beldurtzeko denaz beldur zaitela: gutartean badira  
 Zureak diren urrikaldi berak lezazketenak ukan,  
 Eta gibeleratzen baduzu... Bana dator tiranoa.  
 Ar zaite maite duzunaren ukaitera haren ganik,  
 Jainkoak othoiztuko ditut solasaldi hortan aski  
 Zorion dukezun haren ganik ez ukaiteko deusik.

*Agerraldi II: Zertorin, Perpena.*

## ZERTORIU

Ikasazu xede bat ustegabetarik hartu nauena:  
 Oren bien buruan Pompeiuk hunarano behar du jin,  
 Baditugun eztabadez nahi du enekin solastatu,  
 Sgurtamen orotako eztu hartzen neure hitza baizik.

## PERPENA

Bhotza handi dutenen artean azki da hitzema  
 Ehun bahi balio ditu zu bezalako gizon baten  
 Hitzak, eniz hortaz ustegabetua; bana egiten nau  
 Pompeiuk "Handia" izena hartu duela ikusteak,  
 Adei oso baten egitekotan orano zurezari  
 Eztu nahi blkurako alderdikoa ezten lekurik.  
 Ainitz eginik ukana da noiz ere baita hortarano  
 Zilaren gizandiena den urgulu hura jautsarazten.

## ZERTORIU

Azkarrago bada gu bano, Espainian ez gehiago,  
 Harenak hemen gerlaren uztera baititugu bortxatzen  
 Eta imperio dudazko hortan hetsirik egoitera  
 Probinzia bat edo biek uzten daukotena urrikiz,  
 Beldurtua har eztitzotan haren zori nekatuari  
 Baketaldia bururatuko dueneko primaderak.  
 Zur' ikurrinen batze zorionezkoak neurekin ditu  
 Oren guziez daduzkatan eragin eder hauk egiten,  
 Zuri derautzut zor boteretik ukana dutan guzia,  
 Zaudela beraz guziaren aiduru neur' eskerronetik.

Berriz Pompeiura nator, eta zein arrazoinek hunara  
 Daukuketen ekhartzen asmatzen dutalako ustea dut.  
 Idurittua baitzako gurekin loria guti duela nahitzeko  
 Eta jaukitzearen orde nekea baduela zaintzen,  
 Antolamendu batek on ala ez libera lezan nahi  
 Luke izen handia iluntzen daukon kargu batez;  
 Eta bertzela lausengu zakon itxaroaz gikikatua,

Mithridati zorion hobearekin gerlaren egitekoaz,  
 Erroman izan nahiz sutan dago, han bere buruari  
 Bademon nagusitik manu 'ta botere ukaitekotan.

PERPENA

Usteko nuen Ariztiak, hunara gerizatu baita,  
 Nagusi horren bortxaz errepuatua duenak  
 Maitasun ondar batez leku hautara jinaraz lezala  
 Goiraintzien egitera itxura berri baten azpian,  
 Bere tirano maitearen bidegabea halakoa  
 Baitzen nun etzuen despeditzeak zegizkion onhartu.

ZERTORIU

Orano gerta daiteke: kharioki maite zuten elgar,  
 Bana hemen aldatua den zerbait aurkitzen ahal luke  
 Hainbat du laidoak Ariztiaren bihotz handia mintzen  
 Nun, haren gar lehena herran aldatu, gerizaleku  
 Gure baitan bano lehen bilatzen baitu senar aiphamen  
 Handiagoa duen baten hemen ukaiteko loria.  
 Horrela da mintzatzen et' eskaintzen deraut  
 Erromak orano dituen jende gotorrenen laguntza,  
 Hetarik batzu bere jendakiak, bertzeak adixkideak:  
 Nahi badut harekin ezkondu, guzia hitzeman dute,  
 Haien eskutitzak lekuko, berriki dauzkitanak eman.  
 Astiz ikus ezazu zer behar dutan hor igurikatu,  
 Hortan zure sendimenduari fidatzeko nahia dut.

PERPENA

Ephe batez, Jauna, zalantzan egoiten ahal zintekoa,  
 Ariztiaren ezkontzan ezin jasan zerbait erakusten  
 Dautzun segeretuzko aihergorik bederen ezpaduzu?  
 Ikustean ezkonsariz zer eman nahi daukon Erromak  
 Ezpaituzu den arrazoin gutienik deusen ikhertzeko.

ZERTORIU

Behar dautzut beraz, Perpena, konfienziarekin erran  
 Zertaz nizan beldurtzen eta zer dautan hartzen gogamena.  
 Maite dut bertze nunbait. Hain gaizki doa maitatzea dutan

Adinean, xoratu nauenari gorde baitaukot ere.  
 Bana nizan hau maitatua niz, edo hobeki derradan,  
 Erregina Biriateg enekin ezkontzeko xede du:  
 Nahi du bere gutiziako hautu horrek gurekin has  
 Dezan haren jendaldearen batasuna 'ta nahitara  
 Gero bat estekan bertzeari gur' erresuma bietan  
 Ezkontzek milaka hain ontsa ditzaten nahas bai odola  
 Bai elgarren irabazia, batera biltzerano bi jendeak.  
 Ordain ohorezkotzat galdegin nahi duena hori da  
 Bere menekoen ontasun ez odol gupidesten eztuen  
 Hainbat iraupenekin gu zerbitzatuak ukanik, gure  
 Xede bihotzez handien egiteko azkarrago hemen.  
 Eztaut hori berak erran edo bertze batek haren orde,  
 Bana horren seinale leial zenbait dakusat egun oroz,  
 Eta xede hori neuretzat ezpaita dudan ezartzeko  
 Ezin dut ez jakiten ahal nahi dutan bezainbat baizik.  
 Haren sumintzeaz beldur niz beraz ezkonduz Ariztia  
 Eta haren menekoen zati hoberenak erdeinuaz  
 Mendekatzeko 'ta haren haserrearen zerbitzatzeko  
 Bere harmak eztitzan hisiatuki gure kontra itzul.  
 Zorigaitz handi horren ondoan guretzat ondu ezina,  
 Balio guti du bertzeari daukogunak hitzemaiten,  
 Et' itxaro falsu baten azpian jarri nahiz hobeki  
 Azkargailu horrek onhartzen bada gintuzke galtzen ahal:  
 Horra zerk duen zalantzan atxikarazten neure gogoa.  
 Eztut Ariztiaren aldera higuntasun gutienik,  
 Et' Erreginak eztaut hainbatean menperatzen bihotza  
 Guzien zorioneko guzia orano eztagien.

#### PERPENA

Arima hartu dautzun beldur horrek, Jauna,  
 Harekin ezkontzea ephe bat eztu gibelatu behar.  
 Biriateg hortaz, egia da, gaizkitzen ahal lizate .  
 Bana botererik ezpada, zer balio du haserreak?  
 Izanik ere haren jelsia 'ta mehatxu hutsala

Etzirea beti nagusi haren hiri 'ta gazteluen?  
 Harenek duketen erresumin biziaz beldur baitzira,  
 Zur' armadan ukana dutea buruzagi kargu zenbait?  
 Haien noblerenen eta bihoztunenen eztituzua  
 Semeak bahituzat Ozkan atxikitzen? Erromatarrak  
 Dituzte buruzagiak eta haien gudariek gure  
 Lerroetan banakaturik hainbat gudu dute hauekin  
 Egin nun gurer deratxiketen adixkidantza zaharra  
 Baita gure legeak maitarazten deztauena bertzerik  
 Nahitu gabe. Zergatik beldurra beraz, zergatik eza?

#### ZERTORIU

Eta zuhaur, Perpena, hoinbat maskatua zergatik egon?  
 Badakusat zer zaitan errana: Biriarte maite duzu,  
 Zur' arrazoinetan argitzen du zure maitasun gordeak.  
 Bana hemen arrazoinamenduak soberakinak dira:  
 Errazu maite duzula 'ta ni maitatzetik gelditzen niz.  
 Mintza zaite: hainbat dautzut zor nun ezpaitzait ahalge gabe  
 Eskerrona ephe bakar batez zalantzan egoiten ahal.

#### PERPENA

Galdatzen duzun aithorra hainbat ezti zako bihotz huni  
 Ausartuko bainiz ...

#### ZERTORIU

Aski da hortan: mintza nadin zuretzat.

#### PERPENA

Ha! Jauna, sobera bada hortan...

#### ZERTORIU

Ihardesterik ez othoil!

Ene opa guziak Ariztiarentzat dira jadanik:  
 Hura dut ezkonduko deliberatzen den ber Erregina  
 Zure maitasunaren ordaintzera, egun hartan berean.  
 Ezen zer derrazun ere haren herraz behar dut beldurtu,  
 Hortakotz Erromatarsa aiphatu hortarik eginen dut  
 Ihes. Huna hemen: utz nezazu gogoia dezotan presta,  
 Anartean ikusazu zer moldez zaitan izkiribatzen.

*Agerraldi III: Zertorriu, Ariztia.*

## ARIZTIA

Ofensa etzaitela zorigaitz huntan zuri nardagarri  
 Izaitera bortxatzen baldin banau neure ahultasunak.  
 Ez en' ezkontzako: horrelako hautu baten ondorio  
 Direnek aldi bat bano gehiago gogatuak behar  
 Dute. Bana zuk, Jauna, neur' itxaroari lot dezozkezu  
 Lanjer berri bati kontregiteko segurtamen berriak.  
 Ikasten dut trahitzale bat, lehenago neure senarra,  
 Harresi hautara badatorrela mintzatzeko zurekin.  
 Neur' erretiraren ohorea gutizia dezakete  
 Tiranoaren manuak eta haren sukar urduriak:  
 Jarraipena dakusa batek, distirak izitzen bertzea,  
 Eta kontra doakon arrazoin Estatukoa bi-biek  
 Badute. Bortizkeriaren et' othoiztearen kontrako  
 Segurtamen oso-oso galdegiten derautzut beraz,  
 Bat ala bertzearen bidez nahi badu berriz jabetu  
 Eztezakenaz bertze nunbait atseginekin baizik ikus.

## ZERTORIU

Arrazoina badu hortan, Anderea: hoin merezimendu  
 Bekanak iduriz handitzen du balioa utzi behar  
 Denean. Bana hemen guzien kontra segurrean zira,  
 Zuharen kontrakoa denik aurki ahal dezakezun ber,  
 Eta jakinen duzun ere zuharen zaintzen, mintzatuko  
 Zaizunean, hain xamurki maitatu zintuen ezkergaitz  
 Baten kontra, nekez da hastiatzen ontsa maitatua dena,  
 Eta gaizki iraungi den sua laster phiztua da berriz.

## ARIZTIA

Eskergaitz hark, ezkontza hautziz Emiliaren fagoreko  
 Utzi nau Italia guziaren gaitzespenen menean.  
 Zer heinerano zauritu zaitan bihotza badakizu,  
**Bana bortxaz egina duen laidoa ukha baleza hark,**  
**Emilia haizatzen balu 'ta balaut itzultzen lekua,**

**Graziaren ez emaiteko, Jauna, ninzateke nekean,**

Et 'izanen nizan bezain luzaz neure hitzaren jabea

Osoan harentzat behar niz osoan itzulia bazait.

## ZERTORIU

Debalde hoilatzen niz beraz eta ausartzen, Anderea,

Zur' ariman gogo huni leku zenbaiten hitzemaitean:

Orano Pompeiu da horrek duen soberano bakarra.

Eztute zur' erresumin orok eskaintzen eskua baizik,

Eta haren ezez hortako duketanean eskubide

Beti harena den bihotzak eztu nahiko amor eman.

## ARIZTIA

Zer du balio bihotzak, baldin badakit eginbidea

Ta zure boterea hantzen badu neurekin ezkontzeak?

Aphalduko zintekoa bihotz huntarik maitasuneko

Marka batzuen galdegiteko heinerano 'ta horien

Hautesterano dagien indarrari bere tiranoa

Nahiz desafiatu neure zortearen goititzekotan?

Hasperenez eta garrezko harreman herrestari hori

Utz dezagun Jauna, utz dezagun arima xipientzat,

Batera gaiten bakarrik Erroma suntsitzen ikustera

Doan libertatearen hobeki zurkaizteko. Dezagun

Batera bil zure politikarekin neure mendekua

Errepublika guziaren salbatzeko lanjerretarik:

Hoin egiteko handiak bakarrik ezkontzak bat dezazke.

Egiten ikusi nahi dutana anitz dela badakit.

Bana neure tiranoak bortxaz dematan herritik joaite

Latz huntan, Pompeiuren ondarkina orano bada zerbait,

Eta neure sendimenduak hutsal edo noblegi dira

Erromatar handienetik ekhartzeko bertze norapait.

## ZERTORIU

Etzait eni zor izen hori, bakarrik...

## ARIZTIA

Mundu guziari

Egiten duzunak, Jauna, dauko zu zer ziren erakusten.

Izen horrek zuretzat soberakin iduriturik ere,  
 Neure trahitzalea bederen aphaago da lerroaz:  
 Alderdi baten mutila da, zu zurearen buru zira.  
 Ezkontza haustek azkenean, haren hitza daularik  
 Ebasten, uzten du Zilaz ni nizan bano hertsatuago  
 Zurekin ezkontzeak gorenera baldin banau igaiten,  
 Bertz' ezkontza batek hondatzen duelarik esklabotzara.  
 Bana, Jauna, khexatzen niz, eta zorion horren argiak  
 Sobera suhartasunekin mintzarazten nau hortaz zuri.  
 Ontasun guzia orano segurtasun eskasean dut,  
 Duda-mudan baizik eztezaket asma horren itxaroa  
 Eta beti beldur izanen niz sobera nahi ukanik  
 Itxaro hortaz ihardetsia ukanen eztautazuno  
 Hitz batez utz nezakezu ahalgean edo segurrean.

#### ZERTORIU

Ororen buruan, Anderea, zer dautzut ihardetsiko,  
 Zu zertaz segurta, baldin bazira zuhaur ere mintzatzen  
 Nahitua duzunaz orano segurrean izan gabe?  
 Zur' ezkontza aipatuaren abantail guziak badazkit,  
 Bahitzat ukanak ditutan izen handiak ditut maite  
 Eta dakusat haien laguntzak, guri besoa goitituz,  
 Tiranoa sarri lurrera aurdikiko ahal luela.  
 Bana aiduru hori ere bairaturik ikus zaiteken  
 Eskaintzen baliz Pompeiurentzat atxikitzen den eskua,  
 Ongi horren handitasuna eztuena hemen agertzen  
 Eni guziaren hitzemaireko baizik deus eman gabe.

#### ARIZTIA

Neur' eskua nahi baldin bazinu nizanaren hautatzez  
 Erran nezazuke, Jauna: "Emaiten derautzut, har ezazu;  
 Zer ere duen nahi, berantegi nahiko du Pompeiuk."  
 Bana ezkontza hortako ezpaita maitasuna partaide  
 Politika noble bateko ondorio hutsa delakotz,  
 Onhar ezazu erran dezazutan gauzak nahiz argitu  
 Dotetzat ukanen ditutalarik miliunka besoak,

Ez bururatuz orano gehiago bademazutala.  
 Pompeiu Emiliaren haizatzer a bortxarazten badut  
 Zila nagusi deno, Itali az axola daitekea?  
 Haren haserre zuzenaren meneratzera dea joanen?  
 Ez, ez, irabazten baldin badut, gure gana jin behar du.  
 Horrela segurtamena baduzu enekin ezkontzeaz  
 Zaintzaletzat Erromatar zintzo mila badituzkezula.  
 Bana itzultzeko haren gana baimen hori hausten badut  
 Erromatar horiek Pompeiu haiekin zure dituzu,  
 Ezkontza hauste berri hortaz zure haren adixkideak,  
 Zuretzat izanen da tiranoaren indar handiena,  
 Haren armada, edo bederen soldado bihoztunenak,  
 Jeneralaren urratsetan nahiko dutenak jarraiki:  
 Erromari buruz zirezte joanen elgarren seinaletan.  
 Ordua hor izanen duk, Zila, nitaz beldur izaiteko.  
 Ikharan ikusak heure burgoitasuna behaztopatzen,  
 Baldin badeat ekhentzen ahal ekhendua dautakana  
 Pompeiutik egitekotan heur' emaztearen suhi bat,  
 Hitzaren jale bat, gaizto bat, desohore bat duk egina;  
 Bana bihotzean eskubide bat orano uzten badaut,  
 Berriz hitza, bertutea 't ohorea beretuko ditu,  
 Hautsiko ditik hire gatinak sartzeko neure saretan,  
 Eta hi herra guzi hauen azpian lehertuko haugu.  
 Asti balios huntaz, Jauna, gehiegi baliatzen niz,  
 Horra nun dituzun abantailak: hautatzea zuri dago.  
 Irabazia mugatua nahi badu zure maitasun  
 Ernegiak, diozut orano: prest-presta da neur' eskua.  
 Uzten zitut hortaz gogatzten: orhoit zaite oroz gainetik  
 Neure loriak leku hautan senar bat galdatzen duela,  
 Ezin jasan dezakela neur' ihesak hemen ezar nezan  
 Gerlako gatibu, irriskuan ordaindua izaiteko,  
 Gizon handi bat nahi duena neure hitzaren hartzeko,  
 Zure 'ta Pompeiuren ondotik ehor ezpaita neuretzat  
 Eta nik...

## ZERTORIU

Ikusiko duzu 'ta jakinen haren gogo.

## ARIZTIA

Goraintzi, Jauna: hortan gehienik axolatua ni niz

Eta hortara botere ondar hunen prestatzera noa.

## ZERTORIU

Ni, banoa manatzera ongi hartua dadin izan.

Jainkoak, onharrazue ni ere zuekin nadin argi.

**Zorte zein bortitza den maitatzea politikaren gatik**

**Eta horrek galdegiten duena zorigaitz zein bitxia**

**Eman behar denean eskua 'ta bihotza bertze nunbait!**

\*

## EGITALDI BIGARRENA

*Agerraldi 1: Biriarte, Thamira*

## BIRIARTE

Thamira, mintzatu behar da, gertaldiak hertsatzen gitu:

Erromak hunarano daut igortzen emazte nagusi bat

Et' Ariztiaren bahitzea herritik, inguratua

Nahigabez, ari zako ni nizan guziari goientzen.

Hutsalki dira neure soen erran antzedunak bihotza

Agertu nahiz baliatu balia zaitezken guziaz,

Hutsalki ditut gur' errege guzien xedeak gaitzetsi,

Bertze hautu baten urgulua ustez agerrarazi dut.

Ikuskarri harentzat izaiteko ari nizan bakarra

Badago ala jakitera ausartu gabe, ala sorgor,

Utzirik sendipen nahasi batzu neure herabeari,

Amodio neureak hisitzen duena ezaz dudatzen.

Bazter ezatan horren desohorea 'ta har ezan artha

Erraiteko gizandi hain maite... Thamira, nor den badakin:  
 Neure tronuak nundik lezaken ukan bermerik laguntza?  
 Eta gur' errege guziak norentzat gutiets harentzat  
 Ezpada? Zertoriuk, Biriaterentzat gai den bakarra,  
 Merezi din harentzat maitasun guzia dezatan ager.  
 Jakinaraz ezon neure tronuan azkarragotzeko xede loriosa  
 Neur' eskua hari emanaz, erran ezon... Bana huts egin  
 Nezaken zerbait ikasi nahiz hire trebetasunari  
 Heure prinzesaren zerbitzuko dunan kharra baitakinat.

#### THAMIRA

Anderea, gizon hortan guzia omendun da 'ta handi,  
 Bana gorde gabe mintzatuz amore horrek ustegabetzen  
 Nau: aski berri da haren adineko gizonak bihotz gazte  
 Batentzat ukan ditzan lilluragarri batzu hoin azkarrak  
 Eta bekoki zimur baten izurdura horailek sensu  
 Batzuen biltzeko zorion segeretuzkoa baduten.

#### BIRIATE

Ene maitasunak eztaue sensuer galdatzen aholku,  
 Hastio ditu jaidura bizien nahasmendu bortitzak,  
 Eta neure handitasuneko beharretan eratziki  
 Dutan garrak gutiesten ditu horien erokeriak.  
 Zertoriuren baitan maite dut gerlako lan eder hori  
 Bahitu den bat duena lur guziaren kontra laguntzen,  
 Maite dut ohorez et' erramuz estalia den burua,  
 Belhar hori gerlari suharrenak baititu ikharatzen,  
 Garhaitzea bere duela badidurien beso hori.  
 Bertuteko maitasunak adinarentzat eztu begirik.  
 Merezimenduaren argiek beti dirdiratzen dine  
 Eta guzia badagiken bat maitagarri dun betikotz.

#### THAMIRA

Bana gur' erregek, Anderea, hek gogoan baitzira khexu,  
 Ez ote dute guziek bertuterik, ez ahalik, ez merezimendurik?  
 Eta zur' aldekoetan ahal ote da batek izena  
 Eztuela aipharazia goiegintza batzuen bidez?

Turdetarren erregeak, Keltiberiarrenak hoin gaizki  
Lezaketea zure aiten erretpordoina jasan ahal?

### BIRIATE

Hek bezalakoen kontra haien laguntza nahiko nuke,  
Erromatarren kontra haien botere guzia ezta deus.  
Erroma xoilak dezoke gaurregun iharduk Erromari:  
Bere desafiatzeko gizon bat dauku prestatu behar  
Eta leku hauen fagoretan ber' odolaz behar ditu  
Marratu hauen desteinuak eta banakatu Jainkoak.  
Onhartu duenetik gure herrialden gerizatzea  
Eta hauen prinzen ohoratzea bere adixkidanzaz,  
Zurkaitz hoin gora baten azpian gur' errege  
Aphalduak lagun izenpean etziren menpeko baizik  
Izan, eta menpe horren kontra ausartu zutenak eztu  
Uztarria bortitzagoa 'ta latzagoa baizik egin.  
Zer egina du Mandoniuk, Indibilizek zer egin du  
Ezpada barnago murgiltzea haien tronu gaitzetsien  
Eta haien botere 'ta loria guzien ikustea  
Garhaitaldi bakar baten arkaitzaren ondotik hautsiak?  
**Biriatu handiak, haren ganik baitadukat bizia,**  
**Zorion hobe batetik ukan zuen ordaintze berdin bat:**  
**Hirur pretor garhaitu zituen, irabazi hamar gudu,**  
**Jaukitzea gelditu ehun harresiez gehiagotan,**  
**Eta Zerbiliuren izar nagusituak ezabatu**  
**Zuen haren ustegabetzeko zorion hura bapatez.**  
Errege handi hura garhaitu zen, galdu zuen bizia,  
Eta korona bat uzten zuen menperatua betikotz,  
Haren jendalde gatibuaren burdinen hautsarazteko  
Iheslari noble bat igorri ukan ezpalu Erromak.  
Izan denetik horren kuraia gure zorten buruzagi,  
Gure harmen zorion hoin iraunkor batek eginarazten  
Du hamar urteko gerlak leku hauk segurtzen dituela  
Hoinbertze potestatetako boteredun horietarik,  
**Eta hamar urteren buruan uzten horier doi-doia**

**Pirinoen itzala, bere gerizatzeko gure ganik.**

Gur' erregek bata bertzeaz jelos, gizandi hori gabe,  
 Beti hautsiko zituzten zoriondunenaren egintzak,  
 Ehoiz etzuketan elgarretan nagusi bat hautatuko.

THAMIRA

Bana, dezaketea nagusizat baiets Erromatar bat?

BIRIATE

Eztu izen hori hartzen, berdintasunean egiten daue.  
 Bana Thamira, hori dine jeneral azken-azkenean,  
 Horren manuz gudukatzen dine, horren manuz ditun batu,  
 Et' izenezko errege horiek guziek obeditzen,  
 Hoilatzen den batean haien lerroaren burgoikeria  
 Debaldekoa berdintasun hutsal eta gezurti batez.

THAMIRA

Abantail horren ondotik mintzatzera eniz ausartuko  
 Eta haren adinaz zuk bezala barkatu nahi nuken.  
 Bana gizandi horrek, urtetan zehar izanik menpeko,  
 Luzazegi garhaitua du orano garhitzeko luzaz  
 Eta hilen denean...

BIRIATE

Goza gaiten, izanik ere jelosia,  
 Haren bizitze omendunaren ondarkin loriadunez.  
 Hilen denean utziko dauzkit neure gerizapeneko  
 Bere itzalaren edertasuna 't' izenaren argiak:  
 Bi zurkaitz handi horietan bermaturik neure korona  
 Ezta batere beldurtuko boteredun etsai zenbaitez.  
 Dagikete neuretzat ehun erregek bano gehiago,  
 Bana bertz' aldi zenbaitez berriz hortaz mintzatuko gitun.  
 Dathorrela badakusat.

*Agerraldi II: Zertoriu, Biriате, Thamira.*

ZERTORIU

Anderea, zer erranen duzu

Arima neureak ihes hara dagien xede ausartaz?  
 Eztea bada ohoreko zeinbat zor zaizun ahaztea  
 Galdegitea zure bihotzaren zola dezazun ager?

BIRIATE

Hain guti da hetsia nun bakoitzak hartan baitirakurke,  
 Jauna, derraketan ere bano gehiago menturaz:  
 Hartan zer gertatzen den ikusteko begiak aski dira.

ZERTORIU

Argira dadin hobekixago behar dut bizkitartean.  
 Zuen errege guziak zurekin ezkondu nahiz dabilta,  
 Eta zure zortea zur' ongieginek dagitelakotz  
 Ongi horiez berez othoiztera ausartatzen nizaizu,  
 Eginez hautu handi hori zure gogoan har gitzazun.  
 Prinze bat aldakorra hartzen baduzu, hitzaren jalea,  
 Edo ber' alderdiarentzat aski suhartasun eztuen bat,  
 Norano jausten ikusiko zitugun estima ezazu.  
 Badagiketan hau orano luzaz eginen ahal badut,  
 Ene besoak...

BIRIATE

Miresten ditutan lotsak badagizkizu.  
 Neur' Estatuak hain ontsa ditut ezarri zure menean  
 Nun laket izanen zaitanean senar baten hautatzea,  
 Zure menean izanen baita zer duen ere xedatzen.  
 Bana zuri beldur ergel horren ekhentzeko, hautazazu  
 Zuhaurek, eta niri mintza zaitela gorde gabe deusik:  
 Errege horietan norentzat zira aierurik gabe?  
 Izen handi hori zeini dezokezu gomendatzen ahal?

ZERTORIU

Senartzat beraz Erromatar bat baldin banauzun eskaini...

BIRIATE

Ezkaintza bat ezesten ahal nukea bada zur' eskutik?

ZERTORIU

Aithor horren ondotik ausartzen niz Erroma zaharreko  
 Dela aithortzeko gai den gizon baten eskaintzaren egiten.

Badu hango jaiotzea, badu hangoen bihotz handia,  
 Estalia da loriaz, betegina da merezimenduz;  
 Zur' Espainia guziaren estimua beretua du,  
 Eskuzabala, beldurgabea, mintzerrexa, handi gogoz,  
 Azkenean haren baitan irabazia duzun Perpena da...

## BIRIATE

Gaitasun horien ondotik zur' izenaren beha nintzan,  
 Lotu nahi deztauezun goresmen ederrek eztautate  
 Uzten gutiagoko deusen itxarotzeko baimenik.  
 Bana doi bat ustegabekoa da segurki bihurgunea:  
 Zur' ordezkariari daukozu erregina bat emaiten!  
 Erromatarrek ohaideak horrela hartzen badituzte  
 Zure tribun azkenentzat behar izanen dira prinzesak!

## ZERTORIU

Anderea...

## BIRIATE

Senar hautatze hortaz mintza gaiten garbiki.  
 Enetzat sobera zirea? sobera niza ni zuretzat?  
 Eskaintzea da hori 'ta hitz horrek zaurtzen daut beharria,  
 Nahiz ene lerrokoer maitasun berdina zuzen zaien.  
 Onhartzen dut beraz, Jauna, jakin dezaten hemendik goiti  
 Zer dagitan ikusteko aski on ditutala begiak.  
 Badiot beraz gorakienik izan nadintzat entzuna,  
 Erromatar bat onhartzen dutala bana nahi dut dezan  
 Mana: 'ta zuen erregeak enituen gutietsiko  
 Ezpaliz errege bano gehiago direl(a) obedient.  
 Bana bere botereaz uzten bazituzte zu jujari  
 Haien ahultasunak erret-izena daduka bederen.  
 Beraz urgulu noble horrek guzien aitzinean baitzitu  
 Hautesten, zutaz nornahiri xipiena dauko hautesten.  
 Ezen ohorearen atxikitzeke neure lerroari  
 Behar nuke izenaz eta botereaz errege den bat.  
 Ezpaita gehiago holakorik uste dut zor zaitala  
 Izenik gabeko boterea, nun ezten izena xoilik.

## ZERTORIU

Hetarik jautsia ziren arbaso aiphatuer itzuli  
 Behar zaiena badagien bihotz hori maite dut zinez.  
 Horren urgulu jautsiak gogamen xipiagoetara  
 Elezake utzi dautzuetena behar bezala lagun.  
 Bana zure sortze gorak erret-lerroaren betetzeko  
 Heinean berdina den bat galdegin nahi duenaz geroz,  
 Perpena bakarra da gutartean odolaz elukena  
 Itzalik nahasiko lerroaren edertasunarekin:  
**Errege guretarik et' Etruriakoetarik jausten da.**  
 Niketz, bizira heldu bainau odol gutiago nobleak,  
 Eniz ausartzen izen omendun apur batez itsutzera  
 Tronuaren desohoratzerano neureak diren xedez.  
 Geldi zaitela ene laudatzetik haren laidatzerano,  
 Eztut nahi zuk hautatua duzunaren izena baizik:  
 Izen hoin lorios batek xoratzeko badu behar dena,  
 Zu zerbitzatu nahiz ezarrarazia nau triunfatzen  
 Eta zeruak sortarazi nauen guti hau baniz ere...

## BIRIATE

Izen hori hartuz ar zaitela gutiago nagusitzat,  
 Edo bederen ikas ezatazu zein legen bidez, Jauna,  
 Ene onhartzera ez ausartuz ziren nitaz baliatzen.  
 Neure tronuak demazun errespetua berdin ezazu  
 Neure personan egiten duzun bortxakeria borrekin:  
 Neur' estimuaren ikustea 't' ez hobeki baliatzea  
 Baita gorde ahal elezakena nahi den amarruak.  
 Ohora enezazula beraz eragiterano laido.

Ene hautua izan zaite, hori nahi duzunaz geroz,  
 Utziz ni zure xedez manatzen erregina bat bezala,  
 Ekharzkizu nitarano, nahi dutana hori delakotz.  
 Zure Perpenari aldiz, bere jaoitze gorak ezpaitu  
 Obedientzia zuretik orano batere liberatzen,  
 Erregenetik bezain Jainkoen odoletik baliz ere,  
 Oraitik etzozula neure hautuko loria hitzeman.

Erromak eztauko gradomaila lotzen nobletasunari.  
 Zure Mariu handia jaioa zen aphaltasunean,  
 Erromako populuak zazpi alditarano hautatu  
 Duen bakarra da bizkitartean bere buruzagitzat.  
 Bere ohiduran horrela bakoitzaren estimatzeko  
 Espainiar baten odolari negioke garazia  
 Bete, guti daukot aldiz odolari behatzen Erroman  
 Ikusiz han bertuteak hartzen duela lerro gorena.  
 Erregina izena hek bezala hastio baduzu, zuk,  
 Ikus nezazu, Jauna, erromatar andere bat bezala:  
**Gure jendek ukan zuten burjesiako zuzenbideak**  
 Eztu bekoki koronatuan deusik galtzen balioko.

Izen-orde horren azpian, zu zirena nizanaz geroz,  
 Uste dute zure menpekoetarik bat balio dutala  
 Et' Erroman ezak emanak badauzkitzu andere batek  
 Hura den guzia niz et' erregina bat ere gainera.  
 Ospean behar bada miseria batez urrikaltzeak...

#### ZERTORIU

Badantzuzut Anderea, 'ta deusen ez gordetzeko zuri  
 Aithortuko dut Ariztiak...

#### BIRIATE

Oro dauku erran. Badakit  
 Zer duen itzarotzen eta zer dautzuten izkiribatu:  
 Idek ezazula gogamena galdu gabe demborarik.

#### ZERTORIU

Zuzenbidearen ongiatz da bakarrik axolatua,  
 Bana gure tiranoer Espainiaren ekhentzekotan  
 Zuk eta nik bideak ezperdin hartzen ari baititugu,  
 Ikher ezazu, othoi, elgarren abantaila zertan dugun  
 Eta bihotz kuraidun batek zer egin behar duen juja.  
 Tradi nezazke, Anderea, bai zu bai Estatu zureak  
 Horrelako laguntza bat ikusirik, onhartzen ezpanu.  
 Bana laguntza hori bera gerta laiteke gure galpen  
 Ekhentzen balauku zuk eskainia dautazun esku hori

Et' elgarrekilako gure xedez zorte bekaizti batek  
 Bilkin handi hori balegotza gaizto batzuen eskura.  
 Zila galdutzat dadukat uzten bazinu bateraturik  
 Azkargailu ahaldun hunekin zure Luzitania.  
 Bana senar baten meneko izan zaitezke azkenean  
 Eta Perpena bakarra da zutaz nezakena segurta.  
 Ikusazu zer egin duen, Anderea, guzia zor daukot.  
 Ongi doan othoizte batek haren garraren fagoreko...

### BIRIATE

Hainbat baldin badaukozu zor, ez ote dautazu deusik zor?  
 Eta zure zorrak behar dituta neur' ongi az ordaindu?  
 Neure koronak segurtatuak ukanik zuen buruak  
 Ez ote dut irabazi dituzunen zati bat merezi?  
 Ez ote zitut zerbitzatu beti zerbitzatzeko baizik  
 Eta neure laguntzaz nihauri gativen segurtatzeko?  
 Etzazula hor huts egin: ezkontzen baldin banau Perpenak  
 Botere nagusiaz bilakatu beharko dut bekaizti  
 Et' askitan eragintzale bilakatuko dut nihaurek  
 Ordari bezala baizik errege baten ez uzteko zuri.  
 Aithortu behar dautzut gehiago: nor ere dezatan har  
 Gorenean nahiko dut zutik atxiki neure korona  
 Eta hori da nauena zuri behatzera bortxarazten,  
 Oro gal beldurrez elgarretarik berex behar bagine.  
 Etzitut zu baizik ikusten bandera ber baten azpian  
 Bat dezazkena gur' Espainiak itsasotik menditara.  
 Bana hortako bide bakarra da dutana aitzinatzen  
 Eta herritar maite horrek zer egin ukan dautzun ere,  
 Tiraniaren kontra lagundua bazitu, salbaturik  
 Bere bizia zuzenki da hortan ordaindurik izana.  
 Alderdiko zorigaitzek hainbaterano zuten lehertzen  
 Galdurik ikusten baitzen zure gana hel egin ezpala,  
 Eta gero hortako diotena zinetsi nahi badut  
 Haren armadek, berak nahi gabetan, zurea handitu  
 Zuten. Erromak orduan ezkaintzen du laguntza handi bat:

Osoan harmatu baliz ere bahitu baten fagore,  
 Garhaipen oso baten bazterretan izaiten girenean  
 Horren lorian parte hartzeko beharrik ba ote dugu?  
 Gerlaldi bat orano 'ta gure zalduneria bakarrek  
 Zilaren arranoak mendiez haraindira digortzate:  
 Azken-ethorri horiek erranen ahal daukute zuzen  
 Leku hauetan ezarria dutela gur' imperioa!  
 Ohore horrelakoaz bat eta bertzea giren jelos  
 Et' ahal dugunean oro, zor dezagun bakarrik guri...

### ZERTORIU

Itxaropen azkarrenak ehoiz eztu indar soberarik,  
 Ezkontzen haustez zorte zoridunenak ustegabetzen du,  
 Maite du mendekatzea fidanzia soberakin batez  
 Eta xede handi hortan ezta deus uzteko bazterrera.  
 Ezarri behar ote ditugu hainbateko duda-mudan  
 Erromaren esklabotasuna 'ta gure menpetasuna,  
 Erromatar bertze batzuekin uzitu behar beldurrez  
 Zeruak haien eskuak hor nahi dituzken ohorea?  
 Gure loriak, egia da, eztu bigarrenik ukanen  
 Munduaren libertatea egiten badugu hek gabe.  
 Bana zorigaitz batek badarraizka gudu zorientsuak  
 Guhauri zein erasia bortitzak eginen eztitugu!  
 Urkuts ezazu, bertzela, Perpenak zeinbat maite zituen,  
 Gai dela diademaren ukaiteko edo berak uste,  
 Ainitz ahal duela hemen, betidanik ikusi dela  
 Gaitzituak egiten direla hoberenean manatuz,  
 Erdeinuaz xixtaturik ausartuko dela behar bada...

### BIRIATE

Hitza hautsazula, Jauna, neure nagusitzat egin zitut,  
 Zer dutan ere sendimendua behar dautzut obeditu:  
 Gizandi balioko hori dezazula bada sarraraz  
 Obediencia neureaz egin dezatan ensegua,  
 Eta horrek beldurtzen bazitu, hainbat horrentzak eginik  
 Urriki luze hutsalak hainbat bederen beldur zaitzala.

## ZERTORIU

Anderea, zinets zin...

## BIRIATE

Aski zaizula hitz hori bakarrik:  
Erraiten zaitana badantzut eta zer zaitan erran nahi.  
Zoaz, egiozu leku 't' etzazula aitzinetik uste...

## ZERTORIU

Hasperen bikundu hunek...

## BIRIATE

Etzatazula burura, zoaz:  
Obedituko dautzut nahiko duzun bano gehiago.

*Agerraldi III: Biriате, Thamira.*

## THAMIRA

Haren idorrak harritzen nau, Anderea, 't' ezin dezaket...

## BIRIATE

Nahi du josta dezatan, eztu deusik gehiago nahi.

## THAMIRA

Argi batzu badituzu neur' eskas hunek eztituenak...

## BIRIATE

Mintza dezagun etsai hori: horra hunara heltzen ari.

*Agerraldi IV:*

*Biriате, Perpена, Aufide, Thamira.*

## BIRIATE

Maitatzen nauzu, Perpена, hori du Zertoriuk erraiten.  
Zinesten dut hark errana 'ta fidanza zor diot osoki.  
Zur' amorea badakit bana jalgi nezazu neketik:  
Nundik duzu gogoan erregina bat merezi duzula?  
Zergatik hari gusta 'ta zein lilluramenez egun batez  
Bortxa haren korona zure maitasunaren ordaintzera?

## PERPENA

Agiantza zintzoen bidez, zerbitzu jarraiki batzuez,  
Errespetu barnatuez, sakrifizio lañoenez, eta  
Eragintza zenbaitek balinetan ekharrarazten ahal...

BIRIATE

Hel bada! hari zeren sakrifikatzera prest ote zaude?

PERPENA

Artha guzien, neur' odolaren, kuraia 'ta biziaren.

BIRIATE

Zerbitzaten ahal zinueka jelostaldi zenbaitetan?

PERPENA

Ha! Anderea...

BIRIATE

Hitz hortan bihotzak hutsalki joiten dautzu,  
Ezpaita maitasunekotik, Estatukotik da bakarrik.  
Boterea maite dut, neur' erret-urguluak eztezake  
Penarik gabe bertze soberano bat erreinuan ikus,  
Nihaturen tronuan, begien aitzinean goititzen ari,  
Neur' Estatuetarano duena urrats lehena hartzen.  
Hor nagusi da Zertoriu, dematzola gur' erresuma  
Guziari baietsiak ukan nahi ditutan legeak.  
Eztut hortaz urrikitzerik, aritu delakotz zuzenki,  
Fagoratua duen zeruari eskerrak bademazkot.  
Azkenean erraiteko zuri zertaz nizan ni bekaizti:  
Haren emaztearen ondoan zein lerro dezaket atxik?  
Ariztiak hori nahi du 't' eskaintzen duenak hortako  
Edo norbaitek harentzat, ondorioa du segurtatzen.  
Ibilkari horren ganik herrialde hauk liberazkizu,  
Herriatik bahitez bertze mundu baten nahastera dathor,  
Eta hotsik gabe bertze leku batzuen ohoratzer  
Bortxa dezazula begiak mintzen dauztan omendun hortaz,  
Estatu aski bada geriza daukotenak eskainiko.

PERPENA

Zer ere mana dezatazun, guzia errex izanen zait.

Aldiz ezpada ere harekin ezkonduko Zertoriu,

Eragozpen berean zitu bertz' ezkontza batek ezartzen,  
Et' Ariztiz ala bertze batez azkenean zer munta  
Da...

## BIRIATE

Hauts dezagun, Perpena, solas hori hauts,  
Ordena dezagun oraia, 'ta geroke doakonari,  
Gertakizunaren arabera jakinen dugu hornitzen.  
Aroa nagusi handia da, gauza anitz arautzen du.  
Jelostua niz azkenean eta badakizu zergatik:  
Nahi nauzua zerbitzatu?

## PERPENA

Nahi dutanez? Banoala  
Lasterrez, Anderea, hortara nahiz eman gau-egunak.  
Ba ote duket itxaro zerbitzu apur horrek gainera  
Erakharriko dautala baliagarri zaitan so zenbait,  
Bihotz mardotuak jarraikaraziko baitu...

## BIRIATE

Geldi zaitel!

Urrunegi bazeramatzake xede lehiatuegiak.  
Horrelako zerbitzu batek baduke gustatzeko bide,  
Bana othoi, utz nezazu delibera dezatan sariaz:  
Eniz eskergaitza 'ta badakit zer dutan egin beharra,  
Eta lehen aldi huntako hemen aski dautzut erraiten.  
Zoaz.

*Agerraldi V: Perpena, Aufide*

## AUFIDE

Ikusten duzu, Jauna, nola zaizun egiten nausa.  
Bertze nunbait du bihotz guzia, aithortzen du Zertoriuk  
Zur' ondoan dagielarik partaidea ofizialki,  
Bitartean Erreginak...

## PERPENA

Ah! eztuk gaizki jujatu behar.

Hari zerbitzu badagiolarik idekitzen daut bidea  
Bihotz guziaz besarkatzen diatana bozkariotan.

AUFIDE

Eztakusazu beraz haren gogo bekaitzak eztuela  
Zutaz baliatzea bilatuko zuhauren kontra baizik,  
Eta hausten duzun batean gar berri baten olde hori  
Itzultzera haren gana duzula partaidea bortxatzen?

PERPENA

Hala ere, zerbitza dezagun merezituz amorea,  
Indarrak eta mendekuak eginen dute ber' aldetik.  
Laket zaikun itxaroan egun zenbait ditzagun mentura,  
Ekoizpentzat ezpaginu ere behar eskergaitz bat baizik!

AUFIDE

Bana, Jauna...

PERPENA

Debaldeko hitzak utz ditzagun bazterrera,  
Haren zerbitzatzea dugun gogoan eta gauden hortan:  
Axola bakar horrek atxikitzen daut harturik arima.  
Bitartean Pompeiu ikusten da gure harresietarik,  
Errana dautatela badakik: goazen haren aitzinera,  
Zertoriuk egintza hortara bortxatzen nauenez geroz.

\*

## EGITALDI HERENA

*Agerraldi I: Zertoriu, Pompeiu, lagunaldea.*

ZERTORIU

Jauna, hilkorretan nor zen ehoiz zinestera ausartuko  
Ene loria hoinbertze goitu behar zuela bakeak,  
Gerlak gehiegi laudarazia duen izenak aurki  
Ahal zezakela handitzea bakearen itzalean?

Segurki dudatzen dut orano soa zaitanez bairatu  
 Pompeiu handia harresi hauetan dakusatararik,  
 Eta laket ukanen duenean dakiket Zertoriu  
 Ohore hoin handi batez zein zorionek duen betetzen.

### POMPEIU

Arrazoin biek; bana Jauna, egizu daiten athera,  
 Horiek libertatean erran ahal dezazkizutantzat.  
 Gur' alderdi bietan nagusi den etsaigoak eztitu  
 Ohorearen zuzenbide guziak ahul bilakatzen.  
 Merezimendu zintzoak abantailak dituen bezala  
 Hastio biziener dauetenak gaindia hartzen ahal,  
 Estimua 't' errespetua ordaintze zuzen batzu dira  
 Bertutek etsai burgoiener emanaraz dezeketenak;  
 Eta hori da kuraia gorenari, sobera baizik eztutanari  
 Phorogua hemen egiten, itzultzera zakona jiten  
 Hurbildik gizandi hoin aiphatuaren ikusteko kharra,  
 Haren eskuan ikusi gabe azkonik eta gezirik,  
 Eta behako lazkarri horren belharra harmarik gabe  
 Beso garhaitezin baten gidari gure zaldunen baitan.  
 Gaztea niz eta gerlaria, hainbat aldiz garhailea  
 Nun fortuna soberatuak bihotza hantu ahal baitaut.  
 Bana kuraia handier aithor zintzo hau egoki zaie,  
 Eta zure kontra gehiago dikasat neure damuez  
 Bertze nunbait irabazi garhaipen ederrenek orano  
 Erakatsi dautatenaz bano neure zorionen bidez.  
 Ikusten dut zer den egin behar ikusiz egiten duzuna:  
 Setiatzeak, jaukitzeak, erretirada jakintsunak,  
 Ongi kampakatze, bakoitzari bere karguaren hautatze:  
 Orotan jarraikitzekoa da zur' etsemplua neuretzat.  
 Hal itzul bazinezaket Errepublikara zein eskaintza  
 Miragarria naukol' egiten uste nuen ukanen,  
 Eta zeinbat atsegin nuken, Jauna, joaiteaz Erromara  
 Asti hori badematanaz geroz azkenean bakeak,  
 Hoin balio handiko antolatze baten han egiteko

Itxaropen ahul zenbait hara banu eremaiten ahal!  
Zila zoridunaren ondoan zuretzat deus ezin duta?

### ZERTORIU

Bazter ahal zinezatake beharrez nahigabe zenbait  
Ukan nahi bazinu arima osoan erromatarra,  
Bana sartu giren bano lehen eragozpen horietan  
Zure komplimenduer ihardets dezetan onhar ezazu.  
Estimu handi horrekin ezterautazu deusik emaiten  
Zuhaurek mail goren-gorenean eztadukazunik orai.  
Zure lehenbiziko goi-egintzekin doan garhaitzeak,  
Gure legek nahi duten adina bano aitzinagoko  
Triunfak, hortarako gaitasuna haizu den bano lehen,  
Zein errespetu zaizkizun eman beharrak derakutsate.  
Gertaldi batez apur bat hobeki gupidesten badituz  
Herriaren egonara 'ta lekuetako fagorea,  
Neure jakitateak hartzen badu hortik abantail zenbait,  
Gerlaren antze handia batzuetan adinaren beha  
Dago, ainitz badagi demborak eta neur' egintzetarik  
Erakaspen batzuen hartzea laket izana bazaizu,  
Ene behazunek utzirik lekua zurer egun batez,  
Erakasten dautzutana dauezu bertzer erakatsiko,  
**Eta ni hilik neure karguaz jabetuko dituenek**  
**Ikasiko dute zure kontra zuk neure kontra bezala.**  
Zila zoridunaz den bezainbatean eztut deus erranen.  
Erakutsi dautzut haren indarra zer moldez den ahulduko  
Eta noizpait erakaspen batzu horri junta badezazkot  
Gai zaizkizunak berriz mendien iragaiten ikasteko,  
Zur' erretira omendunari jarraikiko niz hurbildik  
Elhakatzeke harekin arteko mihi beharrik gabe  
Eta Tiberoko hegietan, eskuan zikai batekin,  
Erromako populuarentzat arrazoin galdegiteko.

### POMPEIU

Ikasteko neke dira, Jauna, hoin erakastaldi gorak  
Et' emaiten ahal lauzkizute debaldeko griña batzu,

Bazinagi nihauri horien argitzeko xede zenbait  
Erakatsia ukaiterano horien erabiltzea behar bezala.

### ZERTORIU

Behargabe zenbait baztertzen ahal lautazuke hortakotz  
Arima ukan nahi bazinu osoan erromatarra,  
Errana dautzut jadanik.

### POMPEIU

Hitzald(e) errepikatu horrek  
Bertute garratz eta larde bat unhatzera leramake.  
Niketetz, aski baitzitut ohoratzen bortxa nadintzat nihaur  
Hortaz deitoratzeko gai guzietarik ihes egitera hisituki,  
Deusik eztut nahi gogoan hartu ilunbe horietan.

### ZERTORIU

Badakit egia horiek eztirela batere maite,  
Bana, Jauna, bakarrik baigira, zintzoki mintzatuko niz:  
Lekukoak bazterturik hortako baimen emana dautazu  
Eta zurekin atxikitzen dut ehoiz zure Zila izan  
Ezpaliz bezalako libertate bera. Erromatarra  
Izaitea ote da lurraren nagusiak gatinetan  
Atxiki nahi dituen gerla baten buru izaitea?  
Izen hori, zu 'ta hura gabe, guretzat izan behar zen,  
Haren gatik, zure gatik dugu guk galdua, 'ta zu zira  
Dituzuna bihotz hoin kartsuak herrestatzen uztarrarian:  
Errege bano gehiago ziren, gutiago dira esklaboak bano,  
Eta zure lan handiener jarraikitzen zaien loriak  
Eztu barnarazten baizik jasan dituzten gaitzen lezea.  
Haien miseria da zur' egintza aiphatuen ekoizpen,  
Et' arima osoan erromatar duzula uste duzu!  
Ukana duzu izen hori zur 'arbasoen ondoreaz,  
Bana kharioa balaizu, hobeki bete zinezake!

### POMPEIU

Uste dut ongi dagitala bihotz guzia zaitalarik  
Egun batez Errepublikaren berjartzeko arthan ari.  
Bana, Jauna, besoaren lanetik duzu jujatzen arimaz,

Ainitz aldiz badu batek bertzea eztenaren itxura.  
 Alderdi biek erresuma bat zatikatzen dutenean  
 Bakoitza suertez hoberen edo gaitzenari darraiko  
 Alde bat edo bertzera deraman gertaldiak manatuz.  
 Ezagutzeko neke den alde zuzenenak uzten gitu  
 Guhaurentzat nagusi baten hautatzeko libertatean,  
 Bana hautua denean egin berriz aldatzerik ezta.  
 Mariuren demboran Zilaren menean zerbitzatu dut  
 Eta haren menean eginen zori hilkor batek gure  
 Armaden ondarkin zenbait lagunduko duen bezain luzaz.  
 Ikusten eztutalakotz nola duen bihotzaren zola  
 Eztakit zein xede dezazken haren zoriak egin ahal:  
 Urrunegi baderamatza nihaurek demakot gaizkia,  
 Arimarik engaiatu gabe besoa prestatzen daukot,  
 Joaiten uzten dut neure burua haren laster dohatsura,  
 Neure xede guziak direlarik libertatearentzat;  
 Eta ni gabe zuzengaitzak eta ausartziak hartuko  
 Zuten leku baten atxikitza horrek nau ni bortxatzen,  
 Zila hilik eror eztadintzat botere lanjeros hori  
 Eginbidea badakiten esku batzuetara baizik.  
 Dakitan bezala neure xede a zeurea badakizu.

#### ZERTORIU

Bana, Jauna, bertze batek bezala duzu zerbitzaten,  
 Eta guk oro begien zinestetik jujatzen baitugu  
 Barnearen ikhertzea Jainkoer uzten dauegularik,  
 Zure behazunak beldurtzen gitu 'ta dudarazten jendea  
 Jartzen eztuenez Erroman gizon batetik lege hartzen,  
 Eta zure loria bertze baten manuz eztenez ari  
 Harentzat egiten duen batean eregiten zuretzat.  
 Estimaten zitutanaz geroz errex a zait zinstea  
 Zure aiphamena zinuela libertateaz eginen,  
 Segeretuz zur' arimaren xedeak harentzat direla.  
 Bana gogo aierutsuer baldin banindaue fidatzen  
 Erroma nagusi baten ensegatza laguntzen duzu

Egun batez zu zaitekkelako itxaro lausengarian.  
 Hertsatzen dituen eskuak, baduenak zure laguntza,  
 Eman nahi dauezun uztarriari ari ditu jartzen,  
 Eta dudan nahiko dutenez noizpait esklabotasuna  
 Haien kuraia haztatzen duzu Zilaren irriskueta.

#### POMPEIU

Horrela mintzo direnak aroak argituko ditu  
 Bana dua zuzen estimaturen ikusten dena hemen?  
 Ematazu baimena neur' aldian mintza nadin garbiki.  
 Zure behazunak demat' aldian ikaspen eta baimen.  
 Neure begien zinestetik estimatzen dut, zuk bezala,  
 Barnearen ikhertzea Jainkoer uzten dauetalarik.  
 Ez ote da hemen jendea gizon baten manuan bizi,  
 Eztuzua zuk hemen Zilak Erroman bezala manatzen?  
 Diktatore baten ala jeneral baten izenak zer du  
 Balio, biek duten boterea balin badute berdin?  
 Izen ezperdinek eztaukote deusik egiten gauzari:  
 Hark egiten duen bezala egiten dituzu legeak  
 Eta hastiaraztean jendeaz irrisku baldin bada  
 Zuri desobeditzean elizateke segurtasunik.  
 Niketz, egun zeinbatez izaiten baldin baninz zu zirena  
 Behar bada zuk egiten duzuna banegike orduan.  
 Hortarano...

#### ZERTORIU

Hortarano dudan egoiten ahal zindake,  
 Eta gutixago Zilaren iduria nitaz egiten.  
 Manatzen badut hemen Zenatuaren manamenduaz da.  
 Eztute neure manuek oranokoan ehor erahil.  
 Ditudan etsai bakarrak ororen ongiarenak dira,  
 Gerla zuzen bat egiten dauet eta bat eztut bahitzen.  
 Ene botere gorena da gerizapen bat idekia  
 Et' obeditzen bazait, ezta maite nauten bezainbat baizik.

#### POMPEIU

Hortik are gehiago da lanjeros zure boterea

Nun jendea bilakatzen baitu zure bertutez amoros,  
 Menperatzean amarrua baituzu laket izaiteko,  
 Uste baita nor bere nahiz esklabo zure gatinetan,  
 Eta libertateak argi gutia aurkituko baitu  
 Amorea nagusi duen botere baten aurdikitzen.  
 Arima aierutsuak, Jauna, horrela mintzatzen dira.  
 Bana gauza nardagarri horiek ez titzagula ikher,  
 Ez ere zure menean ideki gerizapenak bildu  
 Dituen bahituen andana hori zenatu bat denez.  
 Bigarren aldiko, biderik ez ote da bakar bat ere  
 Handik Erromara deramaketana bozkario zenbait?  
 Ezin handiago lizateke bideak aurki balire  
 Gizon hoin handi baten itzultzeko bere herritarrer,  
 Atsegina da berriz aberriko harresien ikustea  
 Hark dautzu, Jauna, neure mintzoaren bidez othoitz egiten.  
 Erromak...

### ZERTORIU

Zure nagusiaren egoitzak Estatuko  
 Legetzat ez tituenak bere haserre bortitzak baizik?  
 Eztut gehiago harresi herskune bat deitzen Erroma  
 Dagitzan bahitzek ehorztez mukurru dutena betetzen.  
 Harresi horiek, zori hain ederrekoak lehenago,  
 Eztira presondegiak, hobeki hilhobi batzu baizik.  
 Bana bertze nunbait lehen indarrean berriz bizitzeko  
 Beteki hautsia du Erromatar alegiazkoekin,  
 Eta neur' inguruan baitut haren zurkaitz egiazkoa  
**Ezta orai Erroman Erroma, oro da nizan lekuan.**  
 Hala ere mintza gaiten akomeatzez: bozkario  
 Hori ohorerekin eman dezaguken bide bat baizik  
 Eztakit: batera gaiten eta tiranoa lurrean da,  
 Xede handi horri besoak idekiko dauzko Erromak.  
 Hortik erakutsiko dugu aberria maite dugula  
 Bihotz handiak horrentzat idolatriarano baitoaz,

Eta salbatuko zuk besoaz nik eskuaz ixurtzera  
Urtekal ereman ditugun odol erromatar uhainak.

POMPEIU

Egintza horrek, zuretzat delarik loriaz argitua,  
Ez ote luke neuretzat ilunegia den egintzatik deus?  
Ni buruzagi bertze nunbait, zure menean zerbitzari?

ZERTORIU

Manamenduaren eskubideaz eniz batere jelos,  
Eztadukat ordaintzaz baizik eta uzten derautzut zuri,  
Ez alta zure zerbitzuko nihaur izaiteranokoan:  
Apur bat gehiago nahi dut, bana gutiziatuko  
Dautazua zur' ordariaren izena batasunean?

POMPEIU

Ordari horiek nagusirik ideian baizik eztute.  
Utzia den larderia badatxika haientzat izenak,  
Eztute horren itzala baizik uzten eta jarraikitze  
Ala obeditze zer den ezakite laket bada baizik.  
Bertze bide bat badakit, bai nobleago bai segurrago.  
Zuk nahi baduzu, bere diktatura utziko du Zilak,  
Eta jadanik ukanen zuen bere baitarik utzia  
Ikusia balu etsairik etzuela leku hauetan.  
Uzkitzu lurrera harmak eta jalbideaz ni niz berme:  
Hitza hortaz emaiten dut ukan dutan bezala nihaurek,  
Erromatarra baldin bazira, har ezazu gertaldia.

ZERTORIU

Eniz batere xoratua lilluramendu horren gatik.  
Tiranoa badazagut, ikusten dut haren jukutria:  
Beti ber-bera da zer ere duen iduriz hitzemaiten.  
Zu sakrifikatua zituena bere mesfidantzari  
Elgargo baten egitera bortxarazterano harekin...

POMPEIU

Ondikotz! hitz horrek hiltzen nau, badiot amarrurik gabe,  
Arrazoin bakarra da dautana deitoragarritzat eman.  
Neur' Ariztia maite nuen, haren ganik berexarazi nau.

Ikharan dut orano bihotza nihaurentzat erasian,  
 Ethen gabe gogoratzen dauztalarik hainbat ongi galdu,  
 Eta, Jauna, eskerron mila dauzkitzut emaiten harentzat,  
 Zuri, bihotz handi horri, urrikalmendu zureak baitu  
 Onhartua hemen haren ohoratzea bere gerizaz.

ZERTORIU

Bertute zorigaitzak hunkien gerizatzea goraki  
 Bihotz ona dutenen eginbide gutiena da, beraz  
 Orano gehiago badagit, emaiten daukot senarra.

POMPEIU

Senarra? Zer dut entzuten! Eta, Jauna, nor ote da?

ZERTORIU

Nihaur.

POMPEIU

Zu? Jauna, haurzarotik enea da haren bihotz guzia,  
 Eztagizula Zilak bezala bortxakeria horrekin;  
 Ene gaitzak aski handiak dira horier lotu gabe  
 Maite dutan guziaren ikustea norbaiten besoetan.

ZERTORIU

Orano guzia zurea da. Zaugi, Anderea, zaugi  
 Erakustera zur' ariman zein botere dutan bortxatzen  
 Et' ikus-arazterara gizalde guziari, ahal bada,  
 Enekin ezkontzeko zein bortxakeria zaizun egiten.

POMPEIU

Zerua! hura bera da.

ZERTORIU

Hemen harekin utz zaitutala,  
 Orano bihotz guziaz zuretzat leial dela badakit.  
 Zur' ongia harrazu berriz edo ez deitora gehiago  
 Ausartzen baniz aberastera zuk eman dituzun ezez.

*Agerraldi II: Pompeiu, Ariztia.*

POMPEIU

Egia derratatea, Anderea, et' ahal lizateke...

ARIZTIA

Ba, Jauna, egia segurra da bihotza dutala sendikor:  
Maite nauten arau edo hastio, hastio dut nik ere  
Edo maite ta neure loriak atxikitzen ditu biak,  
Bana neure maitasunarentzat erregina baldin bada  
Hastio dutanean ezta loria beti nagusitzen:  
Enauko jarrikitzen ere 'ta batzuetan nahi bano  
Gutiago 'ta behar bano gutiago hastiatzen dut.

POMPEIU

Haztiatze horrek hartzen du neuretzat hedamen osoa,  
Anderea, eztu gelditu batere urrikalmenduak  
Ez bihotzontasunak ahalik ukan jabalarazteko.

ARIZTIA

Eztuzu beraz ikusten iraupeneko dela nekean?  
Neure garrak, behar duelakotz baizik eztena iraungi,  
Berriz phizteko neure gatik ere zurea du bilatzen,  
Eta senditzen dut zure begietan neure haserrea  
Khordokan, ahuldua, hiltzen ari dela zuri mintzatuz.  
Orano maite ninduzukea, Jauna?

POMPEIU

Zitutanez maite!

Galdegizatazu bizi nizanez edo nihaur nizanez:  
Bizia zait zure maitasuna, zure da neure bizia.

ARIZTIA

Jalgi zaitezte neure gogotik erresumin bekaiztiak,  
Despitaren ume beltzak, etsai duzue neure loria,  
Erresumin trixteak, etzituztet gehiago zinsten;  
Laidoz zer ere zaitan egin eniz orhoitzen gehiago:  
Gehiago eskontzarik ez gehiago Zertoriurik,  
Pompeiu handiarentzat niz eta maite bainau orano  
Itzultzen dautalakotz bihotza berriz osoki maite dut.  
Ez gehiago Zertoriurik, bana, Jauna, erratazu,  
Azkenean itzultzen dautazun bihotz hori mintzaraziz.

Ez gehiago Zertoriurik. Ondikotz! Bana zer ere  
 Nik derratan, erraiten eztautazu: "Emiliarik ez!"  
 Erresumin bekaiztiak neure gogoan sar zaitetzela,  
 Ohorearen ume burgoiak, haserretaldi nobleak,  
 Zuek zituztet zinetsi nahi 'ta leialtasun gabeko  
 Pompeiuk elezake jasan neure herra dudan badagon:  
 Enetzat indar emaiten dauko. Zaugi bada Zertoriu,  
 Ez hortarik beretik ari nau zuri osoan itzultzen.  
 Ezkontza handi horri dezogun eman lekuko handi hau:  
 Hunen arimak, osoki bertze nunbait, eztuke jenarik,  
 Ikusiko du bihotzminik gabe 'ta gogortasun hori  
 Zilaren etxean hartuko dute gogohanditasuntzat.

#### POMPEIU

Laidoz egiten dautzunak laido egiten daut eni ere,  
 Bana maite zitut azkenean eta gehiago ezin dut.  
 Zuretzat ene garrak behin gozagailurik ukan badu  
 Deitora zaite, hastia 'zazu, bana etzaitela eman;  
 Neur' ezkontide izaiteko ara hortan zaudela beti,  
 Atxik ezazu bilhobirano boterea neur' ariman.  
 Eztu Zilak aldi berea baizik, zahartu da 'ta hautsi,  
 Joanen da haren erreinua, ezpada joana jadanik.  
 Botere handi hori phizua zako: uztera prest dago,  
 Zertoriuri bezala hori jakin-arazten derautzut,  
 Egotz etzaitela beraz, Anderea, beso bertzetara,  
 Deitora zaite, hastia 'zazu, bana etzaitela eman:  
 Neur' eskua nahi baldin baduzu, ez hitzeman zeurea.

#### ARIZTIA

Bana nola! ez ote zira zu bertze baten besoetan?

#### POMPEIU

Ez, segetetu hori nola den erran behar baldin bazaizu  
 Emiliak eztauko Zilari doluz baizik obeditzen.  
 Bertze senar baten besoetarik hartzen duen tirano  
 Horrek eztu hausten lotura saildua haren bihotzean:  
**Sabelean ekhartzen du maitasun horren ondorioa**

**Argitara emanen duena neur' etxean egun batez;**

Ara trixte hortan Zilak dematan haren eskuak eztu  
 Alegiazko ezkontza batez baizik ezarri lilluran,  
 Bere Glabrion maitearena delarik oso-oso  
 Iduri du neur' emaztea, izenez baizik eztelarik.

## ARIZTIA

Eta ni bezalakoentzat izen xoil hori guzia da,  
 Hark dakharren izen handia dezatazula, Jauna, itzul.  
 Maitatzen nituen zure xamurtasuna, zure lehia,  
 Atxikimendu horiek bano gorago jarria bainiz  
 Guzia gozagarri duket urratu den sareak banau  
 Neur' arbsoer Pompeiuren emaztetzat itzularazten,  
 Eta neure hilharrian grabaturik izen handi hori  
 Atxiki dutala geroari badauko horrek agertzen.  
 Loria guzia hortik egiten dut, atsegin guzia,  
 Ephe batzu hori galdurik toleamendu batzu zaizkit.  
 Hori gaurregun ekhentzen dautan Zilaz mendeka nezazu:  
 Berriz ezkontzeak itzul dezatala berdina den izen bat,  
 Zilak aphalarazten nauen bezainbat goiti neramala,  
 Ez zutaz bertze norbait eztutalakoan maitatzen ahal  
 Bana senar bat behar dut loriaren mendekatzeko,  
 Omendun bat behar dut eta duena bere aiphamenaz...

## POMPEIU

Ha! etzaitela maitatzez eta maitatu izaitez unha!  
 Menturaz ordu gutiziatu baten hunkitzera goaz,  
 Berezia dutenaren bateratzen jakinen duena.  
 Duzun kuraia gehiago 'ta gutiago ezin egon,  
 Zila hil dadin igurika, utz dezan bere boterea...

## ARIZTIA

Haren hiltzetik ed(o) urrikitzetik igurikatuko dut  
 Zuk onhar ahal dezatasun ohorearen itzultzea?  
 Eta beti dautzut ikusiko bihotza betea hormaz,  
 Tiranoa gaztigurik gabe, neure lekuan etsaia,  
 Baztertu nahiko duen bitartean botere betetik

Nahi ukana duen bezain luzaz ukanik atxikia?

POMPEIU

Bana guzia dagikeno, Anderea, nil zer dagiket?

ARIZTIA

Orotan jarraiki, Jauna, zur' emazteaen bahitzea,

Ekharri hura etxera zure gerlaritaldearekin,

Eta gure nahasmener zorizko jabaltze bat itzuli.

Zer eginen ahal eztukezu armada baten buruan

Garhaitzean ohiturik orotan Espainiatik hara,

Eta Zertoriu zurekin batua denean izanen

Zer dagike tiranoak? Haserreak zer ausartuko du?

POMPEIU

Ezta liberatzea hala iduritzea ephe batez,

Ez uztarriaren inharrostea nagusiz aldatzea.

Omen handiko bermagailua da Zertoriu zuretzat,

Bana egitea hartaz neurea haren azpian nihauren jartzea da,

Gur' ikurrinak bateratuz haren indarra da handitzen.

Haren gana joan den Perpenak behar dena erranen dautzu.

Zerbitzua dagit, bana manua hain urrundik heldu zait

Nun ethorria den bano lehen haren beharrik ezpaita,

Eta hortan badematan errespetu hutsal guti hunek,

Bekaizti egiazko botereazi, itxura baizik eztu.

Ustez ez tut ere zerbitzatzeko arte labur bat baizik;

Eta Zilak prestatzen duenean aldapen hoin gozoa,

Bahi nadin Erromatik dautazua zuk manatzen ahal

Bertze gizon baten manupean uztarrian ezartzeko,

Enizalarik alta ni bekaiztia neure botereaz

Noizpait libertatearen itzultzeko baizik Erromari?

Ez, ez, maitatzen banauzu zinetsi nahi dutan bezainbat

Jakinen duzu nola bat zur' amore 'ta neure loria,

Aldatzera badoan aldiari zuhurki amor eman

Eta zuhaur nola mendeka, horren gatik ni galdu gabe.

ARIZTIA

Maitatua baldin banauzu 'ta bazira hortaz orhoitzen

Neure loriaren itzultzean jarriko duzu zurea.  
 Bana ordu da solasaldi hauk hitz batek burura ditzan:  
 Nahi nauzua, Jauna? Ez ote nauzu nahi? Mintza zaite:  
 Neure zortea dezan arautua ukan zure hautuak.  
 Eman izana nizakon senarrarena niza orano?  
 Niza Zertoriurena? Hor aski bada galdekatzetik:  
 Itzulkitazu neur' estekak, edo libertate betea...

POMPEIU

Ontsa badakusat, Anderea, hautsi behar du bakeak  
 Ezkontza horren hausteko garhaile bezala, hausten bada,  
 Eta zuhauren zaintzeko moldea hain guti dakizu nun  
 Zuri horren ikasteko behar baitzira zu irabazi.

ARIZTIA

Zertoriuk badaki garhaitzen irabaziak atxikiz.

POMPEIU

Zur' irabazteak atxikitzen gostako du anitz bizi.  
 Antolamendu orori athea hetsiko duelakotz  
 Neure hiltzeak baizik deusek ehoiz eztezake segurta.  
 Ba, zina badagit Jainkoez, behar bada zu zaitzan ukan  
 Neure galtzeak baizik deusek eztu harena baztertuko,  
 Eta gertatzen ahal da bi-biek bata bertzeaz jorik  
 Ezagunaraz dezazugun zertara gituzun bortxatu.

ARIZTIA

Eztut ez nik, Juana, hoinbertzetarano doan baliorik,  
 Bertze zereginiek iraungiko dute mendeku gar hori.  
 Zure handitzekoek deramazukete bertze norapait  
 Han zorte batzu hobeak aurkitzen ahalko baitituzu:  
 Zilari zerbitzu egitekoek, haren Emiliaren maitatzekoek,  
 Italia guziaren bortxatzekoek errespetura,  
 Erromaren berjartzekoek libertatean egun batez  
 Zur' urratsak bertzaldetara itzul-araziko dituzte.  
 Arima handiena den abantail horrek oroz gaineratik,  
 Emaztez eta senarrez aldatzeak nor bere gostura  
 Merezi du mundu bururano hedatua dadin izan,

Ehun alderdietara behazun horren eremaiteko.

POMPEIU

Ha! sobera diozu, Anderea, zin egiten dut berriz...

ARIZTIA

Egiak direnek, Jauna, laido zenbait egiten dutea?

POMPEIU

Zure senarra nizala lasterregi duzu zuk ahazten.

ARIZTIA

Ha! izen hori gustatzen bazaizu zurea niz orano:

Horra neur 'eskua, Jauna...

POMPEIU

Anderea, atxik ezatazun!

ARIZTIA

Erroman duzularik aldi berean emazte bertzea?

Ezkontza bertze batez desohoratua nauzun batean?

Zin egina dauezun Jainko berek gaztiga nezatela,

Ephe hau iraganik eta zure begietarik urrun

Atxikitzen baldin badautzut hautsia duzun hitzeman!

POMPEIU

Zer eginen duzu? Ondikotz!

ARIZTIA

Zer dautazun zuk erakasten.

POMPEIU

Maitasun horrelako baten hiltzen!

ARIZTIA

Zuhaurek hiltzen duzu.

POMPEIU

Bersortarazteko eskubide ukanen du bitoriak.

ARIZTIA

Ahulegi badut nik hastioa berriz du handituko.

POMPEIU

Hastiatzen ahalko nauzua?

ARIZTIA

Hori dut agiantzatzen.

POMPEIU

Bi egunentzat goraintzi beraz.

ARIZTIA

Behin betikotz goraintzi.

\*

## EGITALDI LAURGARRENA

*Agerraldi I: Zertoriu, Thamira.*

ZERTORIU

Ikus dezaketa Erregina?

THAMIRA

Dathorren igurikatuz

Zurekin solasta nadin emana dauta manamendua,  
Eta zenbait ephez orano nahi luke bakarrik egon.

ZERTORIU

Eztautazua nora doazen haren sendimenduak ikasiko,  
Itxaropenez gogozan Perpenak gzer duen ukan behar?

THAMIRA

Eztauta gauza horietaz emaiten ainitz segeretu  
Bana ausartzen niz zinestera zur' eskutik eskainirik  
Erdainuaren zebatzen ukanen duela neke guti:  
Ahal osoa baduzu haren baitan.

ZERTORIU

Ha! ahal guti dut

Neure zorigaitzak ekhar ahal badeza onhartzerano,  
Edo hobeki derradan, gehi 'ta gutiegi niz hortan.

THAMIRA

Haren garra lagunduz azkarki laket zaizula uste du.

ZERTORIU

Laket zaitala?

## THAMIRA

Ba, bana Jauna, ustegabe hori nundik?  
Eta hori gutiosten duen bihotza zerk khexatzen du?

## ZERTORIU

Neure xede xamurrenetan haren itxurak badagien  
Errespetu bortitz bat etzazula gutiespen izenda.

## THAMIRA

Errespetuak guti dira zurearen idurikoak  
Bertze batentzat arrazoin aurkitzen baizik ezpadaki,  
Eta horrelako aurdikaldi baten behar lañoener  
Haserretaldi apur bat ukanen nauen nik hobetsia.

## ZERTORIU

Ezta hortik joan kaltegarria izan ahal zaitan deusik  
Hasperen utzi batek hil behar elukenik berehala,  
Bana Erreginak, gutizia berri batzuer sendikor,  
Neur' arrazoinak entzuten zituen, hasperenak ez alta.

## THAMIRA

Jauna, Erromatar batek, gizandi batek dagienean  
Hasperen, eztugu zuzen entzuten zer duen erran nahi,  
Et' adi-arazle bat hobea izanen ahal nizaizun  
Apur batez argikiago mintzatua baldin bazine.  
Badakit zuk barbaroa deritzozun herrialde huntan  
Hasperen batez aihortzen dela batzuetan maitasuna.  
Bana loriak, ihes baitagi jaidura guzietarik,  
Ezartzen zitu horrelako sendipenatarik goregi,  
Izanez aphalegiak Erromako bihotz handientzat.

## ZERTORIU

**Ha! Erromatar izana gatik eniz gizon gutiago!**  
Maite dut eta ehoiz maitatu den banoago menturaz,  
Neur' adina izan arren eta nihaur, gartu zait arima.  
Uste nuen zebatuko nintzala, 'ta neur' antze guziak  
Indar handienetan neur' ahulezia daut erakutsi.  
Politikako beharrek et' adixkidetasunekoek  
Nihauzez urrikaltzeko hein batean ezarria naute.

Orhoitzeak berak hiltzen nau, et' Erreginaren ganik  
Igurikatzen dutan itxaro apur baten beha dago  
Neure barneko bizia, baldinba...

THAMIRA

Jauna, badu onetik,  
Bana gogoa ikusten deraukot azkarki sumindua,  
Et' alegiarik gabe mintzatzea badautazu manatzen  
Itxarotzen ahal duzu bana beldurtu behar duzu:  
Demborarik gal etzazula 'ta bazterrera deusik ez utz.  
Haren xedea behar bada gaizki moldatua dateke.  
Huna hemen: baliazkizu eman zaizkizun abisuak  
Eta guardiman oroz gainetik eztuen nitaz aieru.

*Agerraldi II: Zertoriu, Biriarte, Thamira.*

BIRIARTE

Erran zait xede zuena huts egin duela Ariztiak  
Eta Pompeiu jende omendun hortarik itzuri dela.  
Egia lizatekea, Jauna?

ZERTORIU

Anderea, soberatik,  
Bana uzten duen arren, ariman osoki maitatzen du  
Eta bakea hautsiko du, errana daut, bihar berean  
Ikusten badu niri eskuaren emaitera doala.

BIRIARTE

Guti zirea horrelako mehatxu batez asaldatzen?

ZERTORIU

Ezta hori alabana gehienik trabatzen nauena.  
Bana zuk zein delibero hartua duzu Perpenarentzat?

BIRIARTE

Obeditzea botere beteari gibelatu gabe,  
Et' eskaintza airerako batez jorik arima zureak  
Pompeiuren ondarkinaz axolatu nahi baldin badu,  
Zuri baizik eztagoke joan gaiten biak bihar berean

Eskontza bat eta bertzearen loturen segurtatzera,  
Behar balu ere bakeak hautsi 'ta balu bekaizkeriak  
Ereman bere sukarreroa harrabots azkenerano.

ZERTORIU

Eginen ahal duzu bihar berean...

BIRIATE

Ordu ber huntan.

Ezta zinez obeditzen denean obeditzen emeki,  
Eta zuzentasunetik baduenean obeditzeak  
Ikusten du bere loria ernetasunean datzala.

ZERTORIU

Neur' othoitzek ez erraite zenbait jasan ahal zezaketen.

BIRIATE

Manamendu betegin batzuentzat hartuko ditut beti,  
Laket duena badagikenak manatzen du othoiztean.  
Bertzela ere Perpenak idolatriarekin maite nau:  
Hainbat maitasunek, hetarik jautsi den errege hainbatek,  
Hartaz lagundua den botere beteak ontsa dukete  
Balio, guziek elgarrekin, asmuzkoa den tronu bat,  
Zuri laket zaizun bezainbat baizik irauan eztezakena.

ZERTORIU

Hautu horren fagoretan etzait hiltzea baizik gelditzen.  
Zure mintzotik beretik ukana dut hortako legea:  
Manamendu bete bat delakotz ordu da entzun dezatan.  
Erromatar baten maitatzeko mana dezan nahi duzu,  
Eta neure hiltzea gabe Perpenak eztagikelakotz  
Zure tronuan jartzeko behar du neure zorte guzia.  
Hari zur' eskuaren emateaz, Anderea, manatzen  
Dautazu armadan eta zure bihotzean utz dezotan  
Neure lekua: hoinbat zorionen ondotik zuzenegi  
Da ukan dezan armada gurean eta zure bihotzean.  
Obeditzen dut murmurika gabe 'ta nahi dut bizia...

BIRIATE

Manamendu horren gatik ekhendua zaizun bano lehen

Ezperdina den ordaintze batez deitoratzen ahal niza  
 Adixkide baten bano gehiago denaz etsai baten ganik?  
 Neur' onharmena lasterregia bezain betegia zaizu.  
 Egitera noan ezkontza da zuretzat eragozpen bat,  
 Azkenik aiphatzen dautazu maite baninduzu bezala!

### ZERTORIU

Hori erranik onhar ezazu hil nadin zure oinetan.  
 Zorion guzia dezatala zurearentzat sakrifika,  
 Bana bertze baten besoetan ezin ikus zaituzket  
 Eta hori da zuri erraitea zein ezinbertzetara  
 Nauen gaizki entzuna dutan zure maitasunak hertsatzen.  
 Hoin ohorezko gaiak eginik ere desenkusagarri  
 Ustez ahalgetu niz maitagarri eztenaren maitatzez;  
 Neur' ile beltzuriak ikusiz nahi nuen hortaz zaindu  
 Eta luzaz izana niz zur' erdeinuz segurtaturik.  
 Bana zur' ariman bertze gogamen bat ikusi dut gero  
 Neur' itxaropena baita berehala oinarritu hortan,  
 Eta nihauri hitzeman dut zur' errege guzier bano  
 Gehiago, maitasunak etzuela hautatuko ikusiz.  
 Aithortzera banindoan Ariztiaren eskaintza gabe,  
 Ez ene maitasuna horren gatik emekitu delakotz  
 Bana dudan eztut eman bihotz handi bati zoakola  
 Ororen sakrifikatzea guzien zorionarentzat.  
 Gogamen horier Perpenaren amorea lotu zaie,  
 Ikusi duzu gainerakoa neur' arrazoin azkarrekin.  
 Uste nuen nahigabe horiek ez ahal zautatela  
 Bizpahirur hasperen baizik gostako 'ta nahiz hortaz  
 Konsolatu, adixkidearen estimua bezainbat buruzagi  
 Bihotz handiarena gogoratzen zizatan aitzinetik.  
 Bana ukhaldi hilkor bati hurren, ahal dutana bano  
 Gehiago nihauri hitzemaiten nuela senditzen dut.  
 Huna beraz, Anderea, neure biziaz emazu manu,  
 Berriz eta berriz ere zuri derautzut sakrifikatzen.  
 Maite duzua Perpena?

## BIRIATE

Banoa zuri obeditzera,

Bana maitatzea 'ta hastiatzea zer diren ezta-  
 Eta neure bihotzean arestian zinuen zatia  
 Neure loriaren emaitza bat zen, neure garrarena ez.  
 Harentzat eztut hortarik batere, zuretzat eztut ere,  
 Eztut nik maitalerik nahi, nahi dutana da senar bat,  
 Bana gizandi bat nahi dut, ezkontzaz jakinen duena  
 Hainbat gora hartan sortua nizan tronuaren goititzen  
 Nun Espainiaren zurkaitz zoridun bat izan baitaiteke  
 Utziz neure 'ta bere odoleko errege zinezkoak.  
 Hori zutan aurkitua nuen etsai maite horren alde  
 Neure kontra lan dagien aphaltasunik izan espaliz,  
 Ezartzen zitutalarik ehun errege bano gorago,  
 Haren hautua merezitu du errepu-  
 diatu batek.  
 Maite nauzua?

## ZERTORIU

Hartuko duta orano ausartzia hori?

## BIRIATE

Har ezazula, Jauna, onhartzen dut eta bihar beretik  
 Perpenaren ordainez eman ezatazula zur' eskua.

## ZERTORIU

Zer zoriona luken maitasun gutiago zintzo batek  
 Ber' askiesteaz bertze helbururik ukan ezpaleza,  
 Eta betea balizateke bere zorion osoaz  
 Batere zure handitasunaz axolarik hartu gabe!  
 Bana nik erran ahal dautzutana duzunean ahazten  
 Zur' erresumaren handitzeko lanak ahatz dezazketa  
 Gogoan duzun xede handia erreinatzea delarik?

## BIRIATE

Jauna, hortik urruntzen ote niz eginez zuri grazia?

## ZERTORIU

Anderea! ordu dea grazia horrek distira dezan?

## BIRIATE

Distira hori da, Jauna, Biriateg bilatzen duena.

### ZERTORIU

Guzia galtzen dugu, Anderea, hori lehiaraziz,  
 Perpenaren amoreak erakharriko du jazartzera.  
 Onharrazu arte guti batek dezan eztiki gupidets,  
 Amore berri batek ereman bertze norbaiten ondora.  
 Ariztiaren adixkiden laguntza segurta dezagun  
 Hitzemaitearen bortxaz, gerora gibeleratuz beti.  
 Igurikan atxikitzen dituen itxaro guziaren  
 Aurdikitzeaz galtzen dira, bekaizti bat liberatzen da,  
 Ezpaitu haren gogo khordokatuak erakhartzen ahal  
 Deraukun ustekeria hortaz izan behar sendatua.  
 Erroma mendeka ginezakea galtze horrelakoen  
 Ondotik eta jasan dituen miserietarik libera?  
 Eta haren beharrak baztertzen direnean hoin goratik ...

### BIRIATE

Eta sofri dezan Erromak ala ez, zer dut nik axola?  
 Haren gaitzen makurra zuzendua ukanen dutanean  
 Saritzat ukanen dut haren adixkidearen izena!  
 Konsul eginik haren legen ekhartzen ikusiko zitut,  
 Eta zuhaurek errege bertzen lerrora jautsiko nauzu!  
 Maitatzen banauzu, Jauna, gur' itsasoek eta mendiek  
 Muga ditzatela zure xedeak gur' Espainiek nola:  
 Hor egin ahal dezautzukegu zorte aski eder bat  
 Abentinaren oinetan loria bertze bilatu gabe.  
 Libera dezagun Taxoa 'ta Tiberia egiten utz.  
 Libre denean jende guzia deus ezta libertatea,  
**Bana eder da izaitea libre 'ta mundu guziaren**  
**Ikustea uztarripean eta burdinetan auhenka,**  
**Eder abantail horren zabaleratzea esklabo dagon**  
**Erhodanuko begietan Erroma denean gatibu,**  
 Eder jendalde aurdiki guzien ikustea gutizian  
 Errespetu hortaz, zoriak bertutentzat atxiki baitu.  
 Perpena handiari doakonaz, hoin lotsagarri baldin

Bada, utz ezatazu erabilgarri egiteko artha:  
Hutsetik bihotz handien baztertzeke moldea badakit.

### ZERTORIU

Bana hortik zein abantail bil dezakezula uste duzu?  
Hori badakit zuk bezala 'ta badakusat zer ekaitzak  
Manu harrigarri horrek dezazken gure gainean molda.  
Jazartu batzuen egitea, Anderea, eztezagun  
Bila 'ta gure zorionekin khexatuak ezkirela.  
Holakorik gabe aski neke dauku emanen Erromak  
Baimen eman bano lehen erregina baten ezkontzari,  
Ehoiz eztugu haren gortasuna gurutua ukanen  
Ezpadauzku guri zor ukan loria 'ta libertatea.

### BIRIATE

Aithortuko dautzut gehiago, Jauna, onhartzetik urrun  
Zuretzat hartuko du hortik xedatzen dutan hastioa,  
Haserre bat ezin jabaldua, urgulua gogortutik,  
Eta horren gatik zitut hemen zu geldi-arazi nahi.  
Zer egiteko dut Erroman? Eta zerengatik, othoitzez...

### ZERTORIU

Bana hemen Erromatar orok, Anderea, maite dute  
Aberria 'ta haien lan guzien itxaro bakar bezain  
Eztia sarri garhaitzea da berriz haren ikusteko.

### BIRIATE

Guzien ezartzeko estekan Taxoaren hegietan  
Aski zaiku esklabotasunean Erromaren uztea:  
Maitatuko dute bizitzea zure 'ta neure menean  
Tirano 't' errege baten hautuaz bertzerik eztuteno.

### ZERTORIU

Hastio berdina baitute baten eta bertzearentzat  
Eztute obedituko erregina baten senarrari.

### BIRIATE

Bere hautuko herri batzuen bila joan daitela beraz  
Eztutenak gobernamentuan ez tirano ez errege.  
Guk Espainiarrek, gerlako zuen antzean ikasiek,

Gelditzen zaikun egintza, hek gabe bururatuko dugu.  
 Ezta Zilaren erortea nik dutana gutiziatzen,  
 Neure xede gorenak Erromak derakhartza gutiago  
 Orano, nahi dutan ezkontzak eztezake hastapenik  
 Ezkontza hausteak nagusi diren hiri batean aurki,  
 Eta neure tronu gainetik erakharpenik ez' agertzen  
 Eztenean errege urteko baizik eta deus ez gero.  
 Zuretzat hark bano gehiago egina dut azkenean:  
 Bahitua zitu hark, nik hartua dut alderdi zurea,  
 Ereman nahi dauzkitzun egunak nik begiratzeko ditut;  
 Diadema har ezazu eta utz egin dezan zerbitzu.  
 Ederretik bada entzungabeko gauzen entsegatzean  
 Eraginaz nahi dena huts egiten ikusirik ere.  
 Niketz Erromatar handitik errege bat egin nahi dut,  
 Zu, suntsitu beharrez, enekin batean suntsi zaitela:  
 Loriarekin suntsitzen da maitatzen dena zerbitzatuz.

#### ZERTORIU

Bana gauzen eremaitea hastetik azken bururano,  
 Anderea, 'ta beharrik gabe gaitzitu batzu eginez!  
 Izan gaiten zoriontsu berantago, izaiteko luzazago!  
 Garhaien bat edo bertze trebetasun zenbaiti loturik...

#### BIRIATE

Eztela lehiatzen nauena maitasuna badakizu,  
 Jauna, bana aithor bat egin behar dut ororen buruan,  
 Horrenbertzeko begirapenak unhatzen hasten ari nau.  
 Erregina niz eta korona baten jasaiten badakienak,  
 Mintzatua denean, bat arrazoinka dadin ezto maite.  
 Gogoetatuko niz nihaurez, zuhaurez eginen duzu.

#### ZERTORIU

Ha! Entzuten baduzu zuzengabea den haserre hori...

#### BIRIATE

Haserririk eztut, Jauna, bana neure khexatzeak eztu  
 Gehiago nahi neure zorteaz batere dudatzerik:  
 Erranen dautazu bihar zertan beharko dutan gelditu,

Bitartean uzten zitut aholku norekin dezazun har.

*Agerraldi III: Zertoriu, Perpena, Aufide.*

PERPENA, *Aufideri.*

Jainkoak! nork dezake horrela itzalaraz Erregina?

AUFIDE, (*Perpenari.*

Ariman badu hunek berak ere jenatzen duen zerbait.)

Jauna, guri hurbiltzeak osoki nahasirik uzten du.

ZERTORIU

Badakizua leku hauetan Pompeiuz zer erraiten den?

Hiriko athetarik aski urrun ezarria duzua?

PERPENA

Lagunaldea baitzuen harresietarik aski hurbil

Hautatua dut ez urrunago haren ezarraraztea.

Bana, Jauna, zure laguntzaren behar handienez niz,

Haren aurpegiak burgoitasun hain gora erakusten du...

ZERTORIU

Eztugu deus bururatu bana ezta hori neure faltaz

Eta badakizu...

PERPENA

Badakit mota hortako eztabada...

ZERTORIU

Eztut batere uste ukan utzi behar zirela harmak,

Ezta ordua orano.

PERPENA

Jarraik ezazu, graziaz othoi:

Ezta ordu orano adixkidetasuna unha dadin.

ZERTORIU

Abantail zureak nihauren hunek bezainbat gelditzen nau:

Eztinateke ontsa zu ere gaizki gertatzen balizait.

PERPENA

Egiaz, deitoragarri ninzateken zuk lagundu gabe

Bana zuretzat eztut deusik ikusten beldugarri denik.

## ZERTORIU

Lehena ninzateke jendea hartaz jelos zaitekena,  
 Bana gero zorigaitza laiteke zure gainera eror.  
 Neur' ondotik zutaz da gehienez beldur tiranoa  
 Eta zurea higi lezake neure buru aurdikiak:  
 Ontsa dagikegu biek igurikatuz urteaz goiti.

## PERPENA

Buru 'ta tiranoz mintzatuz Jauna, zer nahi duzu erran?

## ZERTORIU

Mintzatzen nintzan Zilaz, zuk ezagutzen ahal baitukezu.

## PERPENA

Mintzo nintzan Erreginak phitz-araziak dituen garrez.

## ZERTORIU

Gure gogoak bazterreratuak zauden beraz berdinki.  
 Neure guzia bakeko lanjerretera emana zagon  
 Eta galdegiten nautzun zer hots dagien hirian gaindi  
 Pompeiuren eta nihauren solasaldi debaldekoak:  
 Bazinakikea, Aufide?

## AUFIDE

Nahi ezpada deusik aldatu,  
 Jauna, gaizki arituak dira haren lagunaldekoak,  
 Badut jendartean erran-merran ausart zenbaiten beldurra:  
 Errana dute bere diktatura uzten duela Zilak,  
 Bakeko gozoak zuk bakarrik onhartzen eztituzula  
 Eta nahi duzula ehoiz gelditze gabeko gerla bat.  
 Gure soldadoen arima keskatuak ja bozkario  
 Gehiegixko erakusten du Pompeiuz mintzo denean,  
 Eta hutsa hedatzen baldin bada gure gerlarietara  
 Hor eregiten ahalko ditu phozoin batzu lanjerosak.

## ZERTORIU

Ukhaldi hori gotortu den bano lehen hautsiko dugu  
 Eta horren jukutria ilhorraraziko gur' egintzez.  
 Lanjer handiagoetarik zeruak segurtatua nau.

## PERPENA

Ez ote ginegike guk hobeki alderdia onhartuz  
Jauna? Desohore zaizua edo guti segur ezkaintza?

### ZERTORIU

Dudarik gabe bere diktatura uzten ahal du Zilak  
Bana konsulak nahitara egiten ahal ditu ere:  
Horien gorri esklaboak manatuko du haren legez,  
Et' eztukegunean horien manu gaizkorren beldurra  
Hilen gira haren eskugizon uzkurren manuen gatik.  
Zinets nezazu, gogo onegia bano lanjerosago  
Denik ezta zuek biak eta ni bezalako jendentzat.  
Gaztigugabe osoki segurraren nahiz eman lege  
Hori soldadoer, Zilak hartua du politika hutsez,  
Bana Zinaz, Karbonez, Mariu gazteaz nahitua du  
Haien burua erhainaraziak baititu hek guziak.  
Ni aldiz, hots horrekin kampamendu osoak utz nezala,  
Neure persona bakarra baizik etzaitala geldi neuretzat,  
Leku laztagarri zenbaitetan gal nindaik lehenago  
Hura bizi deno konsulagoa galdatu bano lehen.  
Zuk...

### PERPENA

Ezta hori, Jauna, bihotzminez atxikitzen nauena.  
Erreginarekin ezkontzez baztertua konsulagotik  
Zur' oneziez ukaiten badut bederen zorion hori,  
Eztut Erromatik ohorerik batere igurikatzen,  
Eta behin betikotzat Luzitaniara bahitua,  
Uste dut neure bizi ondarrak direla hor segurrean.

### ZERTORIU

Ba, eztut hala ere segurtasunik ikusten orano  
Zuk eta nik elgarrekin deliberatu ginuen hartaz.  
Badakizu Erreginak omorea hain duela burgoi...  
Bana demborak gutiago gora badagike beharrez.  
Gelditzen niz, horren gain ez mintzatzez desenkusa nezazu.

### PERPENA

Mintza zaite, Jauna, neur' opak hoin gaizki direa hartuak?

Maite duta debaldetan, hasperen debaldetan dagita?

ZERTORIU

Diozuketan bano gehiago dio haren joaiteak.

PERPENA

Anitz errana daut bana, Jauna, zoazela bururano,  
Et' etzatazula batere gorde zuk badakizuna hortaz.  
Ez ote ninduzun itxaropen arin batez baizik bete?

ZERTORIU

Ez, utzia dautzut eta hitzema atxikiko dautzut.  
Maite dut eta dautzut emaiten izan arren neure garra,  
Bana beldur niz emaitzak ehoiz eztuen haren baimenik,  
Herra urrikalezinak ekhar eztizan gure gainera.  
Gero zer derrazuket? Espainiak baditu erreginak,  
Eta zorte bat eztiagoa bazinagiken zuhauri  
Zuretzat egiten dutana egiten bazinu neuretzat.

**Bakeatarren erreginak, Ilergetarrenak satifa**

Lezazkete biziki lehenago zure borondateak,  
Erreginak hortan suharki zuretzat artzen balakike.

PERPENA

Hitzema zinautan eta orai ekhentzera bazoaz!

ZERTORIU

Hitzeman dezatan et' eman dezautzutan zer du balio,  
Neure personari lotzen baldinbadu bere handinahiak?  
Estekamendu horren arrazoinak ezagutzen dituzu,  
Segetetuki mintzatua nizaizu hortaz arestian:  
Segetetu hura bera derautzut erraiten berriz ere.  
Eman ezozula zure maitasunari bortxu apur bat,  
Garhaitu dut neurea, berriz ere prest-presta niz hortara,  
Bana partidaren abantaila bada gupidetsi behar  
Erregina hisitu bat behar dea osoki khexatu,  
Egin nahi baitu bere zorte guzia bere hautuan  
Eta haren sokorriak, hamar urtez bano gehiago,  
Aldeko guziek bano hobeki lagundu gituenean?

PERPENA

Zuri damu egiteko heinean aurkitzen duzu, Jauna?

ZERTORIU

Ez, osoki gure suntsi-arazteko eztuke ahalik,  
 Bana hitzeman dutanera gatinatzen baldin banauzu  
 Gur' etsaiekin solastatzera badoa bihar berean.  
 Kampamendua hurbilegi dute, hemen murmurikan da  
 Bakoitza: hortan ikus ezazu zertaz beldurtu behar den  
 Eta hura bortxatuz nolakoa dukegun ekoizpena.

PERPENA

Neure heztea nihauri dago, manatzen du arrazoinak,  
 Bana xede hoin handi bateko bihotz guzia daldara...

ZERTORIU

Etzaitela bortxa, bizia balizait ere gusta behar  
 Atxikiko dut hitzeman dena, izan arren maitasuna.

PERPENA

Agintza zurek ezpaldin badute Biriateren aithormenik...

ZERTORIU

Haren aldetik deus ezterrazuket zaizuenik lausengu.

PERPENA

Bortxatu behar niz beraz eta hori deliberatu dut:  
 Ba, neure gura guziak menperatuko ditut osoki,  
 Zu bezala gaurregun horien nagusi nahi dut izan,  
 Eta maitasun hori utzi dutan arren handitzegira  
 Erranen daukozu Erreginari...

ZERTORIU

He bada! zer erranen?

PERPENA

Deus ez Jauna, deus ez orano, bihar niz hortaz gogatuko.  
 Alta hartan arima sumintzera doatan haserreak  
 Gau huntan berean zimarku zenbait hasiko ahal luke.  
 Erranen daukozu, Jauna, zer ere duzun nahi ukanen,  
 Eta neuretzat erabaki duzunean niz jarraikiko.

ZERTORIU

Miresten zitut et' urrikaltzen.

## PERPENA

Arima aurdikia dut.

## ZERTORIU

Hetaz betea ikusten dutan oinazetan niz partaide.

Zoaz: haren penaren eztitzeko sartzen niz ephe batez,

**Aphairuaren orduan etxera ethorriko nizaizu.**

*Agerraldi IV: Perpena, Aufide.*

## AUFIDE

Nagusi hoin kario horrek mirak badagitza zuretzat

Eta zure garrak fagore paregabeak hartzen ditu!

Haren izen xoilak, nahi gabetan, oro ebatsi zaizun,

Eta mintzatu deneko Erreginak amor emaiten du!

Zein zerbitzu menturatu behar ditu itxaro duzunak

Erreginak datxikazun amorearen merezitzeko?

Eta noizko dituzu, Jauna, begiak ofensatzen dauzkon

Jende omendun hortaz leku hauk ezarriko purgaturik?

Ezta eskergabea batere 'ta bademazan manuek

Obeditu izaiteko hitzemaiten dute gauza guti,

Bana horren ordaintza uzten ahal da berak hauta dezan

Eta hark manatuen egitera joan axolarik gabe.

Eztautazu deusik erraiten? Ikas ezatazu graziaz

**Erabaki duzunez nola den iraganen aphairua:**

**Hitzemanari huts egite hori duzua gorde behar?**

Eta nahi duzua...

## PERPENA

Deliberatzeko goazen etxera.

\*

## EGITALDI BORZKARRENA

*Agerraldi I: Ariztia, Biriate.*

### ARIZTIA

Baietz, Anderea, zu ziren bezala ni horren etsai niz.  
 Maite duzu handitasuna, hastio dut desohorea.  
 Mendekatzea bilatzen dut, ezkondu nahi zinuke zuk.  
 Bana galaraziko ahal nauzu 'ta nik zu ahulduko,  
 Bihotz hobeki idekiak ezpaditu elgar entzuten  
 Ezartzen ahal neure mendekua ta ezkontza zurea.  
 Ebatsi zait Pompeiu 'ta ni hura desafiatu nahiz,  
 Hitzaren atxikitzen ausartzen ezten eskergaitz hura,  
 Gainditzen ala berdintzen duen senar baten bila nabil.  
 Bana xederik gabe niz izaiteko zuretzat burkide.  
 Eztut ere aitzinetik ikusi ahal, ez Erromatar  
 Bati Erregina batek ehoiz ezkoa gur zezakela,  
 Ez arima hainbat erromatarra duen gizandi batek  
 Erregina bat ezkonduz ukha zezala hitz handi hori.  
 Uste ukan dut haren jaiotzean eta zure lerroan  
 Bazela gorromio berdin eta burgoitasun kontrako.  
 Ezkontza onhartzan duela derratate bizkitartean  
 Eta debaldetan doala egungo hautuaren kontra,  
 Bere distira guzia ezpaldinbadu bihar beretik  
 Alderditik bereziko duzunaz geroz zur' Estatua.  
 Horren indarren azkartzea baitut neure xede bakartzat  
 Hor hauste batzuen egitez atsekabe handia nuke  
 Eta ber' adixkidek bano hobeki Zilaren laguntzez,  
 Leku guzietan dauzkotalarik etsaiak egin nahi.  
 Mintza zaite bada: zein itxaropen dautazun ere hartzen  
 Ikusi, nahizetik geldituko niz zuk nahi baduzu.  
 Itxaro bertze baten ondar bai zuzen bai eztiagoak  
 Ikusiko du griñagabe Zertoriu zuretzat dela.  
 Neure bihotzak nahi ditu Pompeiuri oren guziez

Neure leku bortxaz hartuko min guziak sakrifikatu,  
 Mendekatu nahi ukana dut, hastiatua ezin dut.  
 Deus etzatazula gorde, gordetzen dautzutanago bano.

### BIRIATE

Biriatek zintzotasun berdina zor dautzu ber' aldetik,  
 Anderea, 'ta sobera zaizu erranik bertzela ere  
 Zuri gorderik atxikitzeke gogoa zerik hartu dautan.  
 Bereziki Afrikatik ethorrarazi dut Zertoriu  
 Estatuaren salbatzeko tiranoaren boteretik,  
 Eta neure auzo heziek zerakastaten hura gabe  
 Zilaren kontra zurkaitz hutsalak zirela gur 'erregeak.  
 Gizon handi hori untzi bakar batekin zen lurreratu,  
 Abiatu zen gerlara neure menekoekin bakarrik.  
 Neure plazak eta portuak eskuetan nauzkon ezarri,  
 Gomendatu nauzkon erret-pordoina 'ta neure dirutzeak.  
 Hastetik jakin zuen garhaitzen: ikusia dut garhaipena  
 Egunez egun haren botere 'ta loriaren handitzen.  
 Alde guzietarik hainbat khartsuki juntatua dute  
 Gur' errege uztarriaz nekatu 'ta zure hertsatuek  
 Nun azkenik gure harma zoridunak bulzatu baititu  
 Zuen hertsia-arazterano Pirinoetako oinetan.  
 Bana badakusatan heinean ukan ondoan ezarri  
 Neuretzat gai datenik eztut ikusten hura baizik  
 Eta so eginez haren loriari 'ta neur' egintzari  
 Hil nindaikere bertze bat partaide dadin izan bano lehen.  
 Neure menekoek balio dute bada dezatan maita  
 Gobernatzen dakien odoleko monarkaren emaiten,  
 Munduko zuen tiranoer ihardukitzen dakiena,  
 Et' ohorezko erramuez duena hain jori eginen  
 Gur' Espainia, ikus dadin egun batez beldurtzen Poa  
 Eta Tiberia bera bere hegientzat ikharatzen.

### ARIZTIA

Handia da zure xedea bana zertara duen nahi...

### BIRIATE

Erran nahi dauztazun arrazoin horiek erranak dauzkit.  
 Badakit itxaropena dematan ezkontza loriazko  
 Horren ixiltze 'ta gibelatzeak baluketela onik,  
 Bana egun eskaintzen zakon bakeak gizon handi horri  
 Erromako bide 't' atheak sobera dauzko idekitzen.  
 Dakusat han sartzan baldinbada neuretzat galdua dela  
 Eta neure hitzaren emaitzez bahitu nahi dut handik.  
 Aithortze hori eginik menturatzen badut gehiegi  
 Neure galtze segurra bano lanjer hori nahiago dut,  
 Eta gure bahi guziak hortik berex jartzen badira  
 Hek gabe lagunduko ahal gituzte gure zorte onek.  
 Neure jendalde dituenak zuen larderiak azkartu  
 Ehoiz eztukete nagusitu den Erroma bihotzean,  
 Eta dira Erromatar batzu haien axola bakarra  
 Gudukatzea, irabazte 'ta triunfatzea dena hemen.  
 Gizandi hori buruan ibiltzen ikusiko duteno  
 Laztarik gabe irabaztez izabazte dira joanen.  
 Behazun hoin handiak lagundurik ederki  
 Jakinen du... Bana zer du erran nahi Erromatar hunek?

*Agerraldi II: Ariztia, Biriarte, Arkaz.*

#### ARIZTIA

Arkaz neure anaiaren liberatua da, Anderea,  
 Hunen jiteak hunara gordetzen du mixterio zenbait.  
 Mintza hadi Arkaz, errak...

#### ARKAZ

Eskuthitz hauk nik bano hobeki  
 Erranen dautzute doi-doia zineskarri den gertaldi bat.

ARIZTIA, *irakurtzen du:*

"Arreba maitea, ordu dun dakinan bozkariatzeko  
 Gure 'ta hire gaitzak bururatzeraz doazela zinez.  
 Zila hirian badabil haxerik eta harmarik gabe  
 Egina duen guziaz arrazoinen emaitera prestik.

**Zenatu betean utzia din bere botere guzia  
 Eta Pompeiuk hiretzat ixuri apur bat baldin badin  
 Haren ezkontza berria zeruak hautsia din berriki  
 Et' Emilia zorigaitzekoa erditzean hila dun.**

Zilak berak hainbat herraren jabaltzekotan din onhartu  
 Hain eder izan zen garra bere gaitasunean sar dadin,  
 Et' amoreak itzul hezan heure lehen gatinetara  
 Hark Erromari libertatea daukon batean itzultzen.

QUINTU LIBERIU"

Urrikigabe neuretzat izaitez zerua unhatu da!  
 Hiri bezala zorion hau zinetsezin iduri zaitak.  
 Pompeiuren kampa laster egik, errok Arkaz maitea...

ARKAZ

Badaki berri hori et' ari da gibelera itzultzen  
 Zilaren izenean aldamen handi hortaz Pompeiuri  
 Eskuthitz berdin baten emaitiaz kargatua, hemendik  
 Hirur mila urratsetan haren aurkitzen baitut jakina.

ARIZTIA

Zer amore, zer bozkario erakutsi nahi ukan dik?  
 Zer dik erraiten, zer egiten?

ARKAZ

Badakizunetik estima

Dezakezu bada haren ezinegona nolakoa den.  
 Bana osoki berritzultzera uzten eztuen amore  
 Olde batez zu ziren lekura berriz deitua izanik,  
 Gertaldi handi horrek armadako galdatzen duen manu  
 Emaiteak gelditua du hara joaiteko igurikan.  
 Hurbildik jarraikiko zait eta aitzenetik igorri nau  
 Erakastera gogatua etzinuten mirakulu bat.

ARIZTIA

Aldia duzu hortaz bozkario berdin baren hartzeko  
 Anderea, horra zu beldurtzerik gabe 'ta partaiderik.

BIRIATE

Zutan eztut gehiago, hortaz eztut dudatzen batere,

Bana beldurtzeko 'ta gehiago bertze bat gelditzen zait,  
 Erroma, gizandi horrek beraz gehiago maite baitu,  
 Eta dudarik gabe diademari bailezoke hautets,  
 Eta maitasun horren kontra...

*Agerraldi III: Biriarte, Ariztia, Thamira, Arkaç.*

THAMIRA

Ha! Anderea...

BIRIARTE

Zer dun bada,

Thamira, 'ta begitarte aurdiki hori nundik heldu zain?  
 Zer erran nahi dine hire nigarrek?

THAMIRA

Galdua zirela,

Zu gerizatua zituen omen handiko beso horrek...

BIRIARTE

Zertoriu?

THAMIRA

Ondikotz Zertoriu handi hura bera...

BIRIARTE

Eztuna bururaruko?

THAMIRA

Anderea, Zertoriu da hil.

BIRIARTE

Ezta gehiago bizi? Oi zerua! nork erran daun hiri?

THAMIRA

Horren erraitez hoilatzen dira haren erhaileak berak.  
 Tigre horiek, errabiaz aphairu baten erdian dutenak moztua  
 Haren desteinua traditzale baten manuz, estaliak  
 Odolez badabiltza hirian gaindi, nahitan jazartu  
 Soldadoak eta jendalde zoroa; jeneral izenaz  
 Berek deitua duten Perpenak gehiegi baizik eztu  
 Erakusten ukhaldi hilkor hori nundik abiatzen den .

## BIRIATE

Aldi berean agertzen dauzkit egilea 't' arrazoina:  
 Erhaintze hori eginik nihaurez baitira baliatzen,  
 Neure tronua dute, ni naute ustez irabazi nahi  
 Eta neure hautatze zuzenak du hilarazi bakarrik.  
 Hura galdu eta lanjer horien erdian, Anderea,  
 Etzazula nitarik igurika ez hasperen ez nigar:  
 Jostagailu batzu dira gutiesten direnak errecki  
 Erresumin bizia denean ernea bezain noblea.  
 Erret-arima batek urgoitasun gehiago behar du,  
 Eta neure oinazea, mendekatzeko arthen azpian...

## ARIZTIA

Bana lanjer handiaren erdian, itsuturik bazaude.  
 Emazu ihesari, Anderea...

## THAMIRA

Ezta ordu, Aufidek,  
 Traditzale horrek palazioko atheak hartu ditu,  
 Egin du zure presondegia, harentzat berme da zutaz.  
 Badathor: hain zuzena den haserrea gorde behar duzu  
 Eta dathorren arteo ordu fagoragarriago bat  
 Onhar dezazula gatibua zirelakoaz orhoitzea.

## BIRIATE

Zer nizan badakit eta beti nizan haur bera izanen  
 Neure urgailatzat zeru 'ta nihaur baizik ezpanu ere.

*Agerraldi IV: Perpena, Ariztia, Biriате, Thamira, Arkaз.*

## PERPENA

Zertoriu hil da: geldi zaite bekaiztia izaitetik  
 Haren ezkontideak har zezaken lerro goraz, Anderea,  
 Et' etzaitela bizi zen orduan bezala beldur izan  
 Zuharen Estatuetan har dezan aitzinean urhatsa.  
 Ariztiaren itxaroak zurea itzaldu bazuen  
 Harenaz bezala bertze guzietz dezakezut segurta

Eta ukhaldi zorizko horrek zitu edukiko ahal  
 Ihardokitzen oraikoari bezainbat gerokoari.  
 Gerlari handi bat zen, bana haren odolak ez adinak  
 Etzezaketen zurekin egin bateratze bat zuzena,  
 Eta huts horiek izan arren laket zizaizuna hartan  
 Zen tiranian atxikitzen zintuen haren gaitasuna.  
 Jeneralaren izenak maitagarri bilakatzen zaizun,  
 Zur' erreger eta nihauri hura zizaizun hautagarri,  
 Zuhaur lilluratua zindagon izenaz eta karguaz,  
 Eta natorzu nitan bat eta bertzearen eskaintzera,  
 Gaitasun batzuekin hetan zur' arima gorak jakinen  
 Baitu hobeki aurkitzen Erregina bat nola merezi.  
 Manatzen duen et' erretodoletik den Erromatarrak  
 (Dutzat adina bazterrera) haren hautua ditzaroke,  
 Gehienik amoreak mendekatu duenean laidoaz  
 Eta haren besoak hautu zital batetik liberatu.

#### ARIZTIA

Etxean heure jenerala hihauri (\*\*) sakrifikaturik,  
 Etsai horlako baten itzalak ikharatzen hinduena,  
 Beldurtia, emazte batzuen desafiatzera hator,  
 Heure gar hastiagarrietz espantu egitera ozarki,  
 Erregina batez jabetzera beraren palazioan,  
 Hunen eskuaren galdatzera heure gaizkien sariko!  
 Beldur hadi Jainkoez, gaiztagina, edo Pompeiuz, beldur  
 Haien herraz; hunen besoak, ezpatak izi hezatela,  
 Eta zein urgulu ilunek ere bahau itsutzen ahal  
 Ikasak orano maite nauela 'ta daldaran has hadi.  
 Uste dukan bano lehenago, gaiztoa, ikusiko duk,  
 Haren ganik ordaintze zuzen batzuen igurikan ago.

#### PERPENA

Zinesten badu zure suhartasuna hiltzeaz segur niz  
 Bana behar bada, Anderea, eztu hori zinetsiko,  
 Eta nuenean ikusiko armada bati manatzen,  
 Hainbat aldiez haren kontra garhaitzen ohitu denari,

Errex bilakatuko da haren agiantza bizienak  
 Arestian berean egin dezan bake baten egile.  
 Bahitu bat aski ona dadukat ere neur' eskuetan  
 Abantail zenbaitekin neur' antolamenduen egiteko.  
 Anartean neure 'ta zeure zorionarentzat mintzatzen  
 Ahal zindake gutixago gora deus ezterrazunari.  
 Neke sobera dematzute aireko mehatxu horiek.  
 Egin dutanetik landa dutzagun egiten Erregina  
 Eta gaitzerran gabe zuretzat eztiren xede batzuez  
 Senarraren bihotzaren berrukaitez goga zaitela.

#### BIRIATE

Alabana, Anderea, nik derautzut ihardetsi behar  
 Eta neur' ixil eskergabeak ahalgetzekoa badu.  
 Goi-egintza bihoztun horrek, sendimendu noble horiek  
 Neure ganik eskerron gorenak merezituak dituzte:  
 Zuzengaitz egiten zako horiek orano gibelatuz.  
 Zerbitzu seinalatu bat egin ukan daut dudarik gabe  
 Ez jakinez orano handitasun horren erdia baizik.  
 Zertoriu handia izan zen haren adixkide oso.  
 Ikasazu hori, Jauna, nihaurek zinesten dutalakotz  
 Zure lerro berriari zor daukogula deitaldi hori  
 Et' iraun ahal ukanen zaizun dembora gutikotzat  
 Guti gusta behar zaitalakotz zuri horren emaita,  
 Ikasazu beraz ez nihaurek laketzera zure gatik  
 Ausartuz, gizandi horrek neure haserrea merezitu  
 Zuela, 'ta neur' amorea 'ta haserreak izan arren  
 Zuretzat izan nadin indar guziak egin dituela;  
 Eta hari hitzaren itzultzea ezpalizaizu laket,  
 Igurikapen arin bat baizik etzen ene xede guzia  
 Neur' eskuaren ez onhartzen hisitzen zelarik zuretzat.

#### ARIZTIA (*Perpenari ?*) (\*\*)

Eta murgiltzen ahal daukok (\*\*) hari bihotzean nabala!  
 Hire besoak...

#### BIRIATE

Onhar ezazula, Anderea, dezatan  
 Gaiztagintzaren handitik estima maitasunak duena.  
 Haren etxean berean, mahian, aphairuko erdian  
 Adixkide hoin beteginaren erhaintzale bilakatze  
 Et' egite berari sakrifizio bere jeneralaz  
 Haren adixkidanzak bademalarik hainbertze zerbitzu,  
 Loriaren baztertzea, onharturik behin betikotzat  
 Gaizkintza handier darraieten desohorea 'ta lazta,  
 Bortizkeria neure bizitegi huntarano ekharriz,  
 Neur' eskuaren ukaiteko atxikitzea zaintze gabe:  
 Are gehiago du horrek guziak erakusten zer zor  
 Dutan neuretzat ukan nahi duken amore soberako.  
 Arima osoki xoratu bat derakusa horrek orok.  
 Ni gutiago maitatuaz ogena gutiago luke  
 Eta sendimenduak eztitutanaz geroz eskergaitzak,  
 Enekin ez ezkontzeaz eman nahi daukot aholkua.  
 Hori lizateke ber' etsaiaren ezartzea ohean,  
 Ordu guziez haren biziaren jabe lizatekena,  
 Et' ohore sobera hortara deliberatuko nintzan  
 Hari bihotza nun zila hautatzekotan ezin hobeki.  
 Horra, Jauna, neur' eskerronaren ondorioa nola den.  
 Bertzela ere neure persona zure boterean dago,  
 Nagusia zitut hemen, manazazula, delibero har,  
 Ukan ezazu azkenik neur' eskua, ausartzen bazira.

#### PERPENA

Ni! Ausartuko nizanez? Zure aholku gogoz handiek  
 Neure gaizkien zabaltzen antze gutiagooa lukete:  
 Hauen hedamen guzia zuk bano hobeki badazagut  
 Eta ontsa horren ezagutzeko aski zait gostatua.  
 Etzaie urrikalmendu bat ontsa gogorra gabe lotzen  
 Hainbateko fedegaizto 'ta hainbateko eskergaitzari.  
 Zure gatik dut zebatura, zure gatik suntsitua dut:  
 Desohorea hortik dut, hortik ukanen dut ekoizpena.  
 Mehatxazkizu neure gaizkiak neure burua bahituz:

Gaizki horien beren irabazia zu izanen zira  
 Eta neure zorion orok ezpalirau bi egun baizik  
 Bihar beretik izaitea hortarako prest aski zaizu.  
 Zure herra onhartzen dut eta ontsa merezitua dut,  
 Geroa ikusi dut aitzinetik, badakit hedamena.  
 Neure triunfak...

*Agerraldi V: Perpena, Ariztia, Biriarte,  
 Aufide, Arkaz, Thamira.*

#### AUFIDE

Jauna, Pompeiu ethorria da hunara,  
 Gure soldadoak jazarturik, jendaldea khexaturik.  
 Haren izenean, itzalean, atheak dira ideki,  
 Adixkiderik eztugu ainitzari eztemonik amor:  
 Antoniuk eta Manliuk, urraturik ere puskaka,  
 Oro hilak, odoletan, orano babiduzte burreuak.  
 Gartsuki bilatzen ari du gaizkiden gaineratekoa  
 Gaztigatze berdinetara duena berak eremanen.  
 Neure lekuaren zaintzen nindagon: bapatez bortxatu du  
 Eta zauritua ikusten nauzu haren eskuaz beraz:  
 Hemen guziaz osoki nagusi aldatzen du guardia.  
 Goga zaitela zutaz, hiltzera noa, jarraipena zure gain. (\*\*\*)

#### ARIZTIA (\*\*\*\*)

Zein orenetako, Jauna, behar dugu segurtatzera  
 Jiten zaikun zorion bekan hortako prestatuak izan?  
 Eskuetan atxikia duzua bahitu bat aski ona  
 Zure hitzarmenen egiteko abantail handi batekin?

#### PERPENA

Neure fagoretan axola soberaxko hartzea da hori,  
 Anderea, eta horren satifatzekoa badut hemen.

*Agerraldi VI: Pompeiu, Perpena, Biriarte, Ariztia,  
Kelzu, Arkaç, Thalmira.*

### PERPENA

Jauna, berriki zer egin dutan ikasia dukezu.  
Bakearen kontrakoa zena sakrifikatua dautzut,  
Zur' ezkontidearen maitalea, burkide omenduna,  
Zure xeden ongi heltzearen etsaia zena orotan.  
Ariztia itzultzen dautzut et' arestian zur' arima  
Hartaz sobera hartua ikusten zen beldurra gelditzen,  
Eta hura bertze besoetan etzakusken behargabe  
Bekaizkorra zen hartarik liberatua ezartzen zitut.  
Gehiago dagit: eskuratzen dautzut etsai bat burgoia,  
Duen urgulu guziarekin eta Luzitaniarekin:  
Egin zitut horien nagusi 'ta ja zoriak eskuratu  
Dauzkitzun Erromatar horien guzien. Lehia behar  
Duen xede handi bateko jende ainitzekin ezpaita  
Mintzatzen, eztut uste ukana, Jauna, nauela guzier  
Jakin-arazi behar joanen nintzala bihar zur' ondora.  
Bana lekukotasun segurrak ekhartzen ditut nihaurekin:  
Neure fidanzaz eskuthitz hauk berme on batzu zaizkikezu,  
Et' ezagunen duzu horien erranara gaitzetarik  
Erromak zeinbat baduen zuretzat etsai segetuzko,  
Guziak, Ariztiarentzat mendekatzeaz suhartuak,  
Zertoriurekin gaizkide baitziren. Irakur ezazu...

*Emaiten dauzko Zertoriurentzat Arizitak Erromatik ekbarriak  
zituen eskuthitzak.*

### ARIZTIA

Zer? gaixtagina! Zer? bihozkabea! ausartuko ote hiz...

### PERPENA

Anaderea, zure nagusia da hemen eta neurea,  
Behar da hunen aitzinean apur bateko lañotasun  
Eta bortxatzen baldin bazitut ihardespen zenbaitera,  
Egin behar da mingarrik gabe, laidorik ez nahasiz,

Eta noren aitzinean ziren ahatzia ukan gabe.  
 Ikusten dituzu hemen Jauna, bi burkide omendunak,  
 Heriotze horrek herra berdin batzuez phiztuak ditu.  
 Azken hein batetarano eginak dauzkitate laidoak,  
 Bana ikusten zitutanaz geroz badut aski mendeku.  
 Jainko begirale bat bezala ikusten zitut hortakotz.  
 Eztezaket ere... Bana, Jainkoak! Zer egitera zoaz?

## POMPEIU

*eskuthitzak erre ondoan irakurri gabe,*  
 Erakustera segetetu hortaz zer dutan jakin nahi.  
 Ezagutu baninduzu, bazinakike aitzinetik.,  
 Erroma bi alderdietan sobera luzaz zatitua  
 Ezta neure gatik berriz hetara murgildua izanen  
 Eta Zilak dauzkonean itzultzen loria 'ta ohore  
 Eztitut sarraskia 'ta lazta nik han ezarriko berriz.  
 Entzun, Kelzu.

*Beharrira mintzatzen zako.*

Oroz gainetik utz etzazu dezan izanda  
 Ariztiak Erroman egin dauztan etsaietarik ehor.

*Perpeanari.*

Zu tribun huni zarraikola, baditut egiteko batzu  
 Solasaldi segretuzkoak galdatzen dituztenak hemen.

## PERPENA

Jauna, horlako zerbitzu baten ondotik balizateke...

## POMPEIU

Badakit zer balio duen, zuzen dena emanen daukot.  
 Zoaz.

## PERPENA

Bana bizkitartean haien herra...

## POMPEIU

Hortan aski da.

Nagusia niz, mintzatua niz, obedi ezazu, zoaz.

*Agerraldi VII; Pompeiu, Biriarte, Ariztia, Thamira, Arkaz.*

## POMPEIU

Nagusitzat mintzatzen entzuteaz ofensa etzaitela  
 Erregina handia, ezta traditzale baten gaztiguz  
 Baizik, gaiztagin zur' aldera entzun ukanik gehiegi  
 Haren aphalkeria beltza ziragan ausartasunetik,  
 Uste ukan dut hartu behar zela manatze gora hori  
 Niharen zuzentzekotan zuri zerbait erran bano lehen.  
 Eniz alta heltze hoin errexaz baliatzen zuzengabe,  
 Et' choiz eztut ere jakin neure ongiheltzen gordetzen.  
 Zein laguntza haren gaizkiak egun ekhentzen dautzun ere  
 Bakea dautzut eskaintzen et' artebakea eztut hausten:  
 Gur' Erromatarretan ondoan dituzunak badagozke  
 Hor berean beldurtuak izan gabe neure haserreaz.  
 Lanjer zenbaitetik baldin bazitut segurerean ezarri  
 Sari orotako eztut hartu nahi Ariztia baizik:  
 Zure aitzinean baitauzkot, azkenean neure nagusi,  
 Neure bozkarioa, eskua 'ta hitza berriz ekhartzen.  
 Deusik eztiot bihotzaz, izan baitzen beti hunen alde.

## ARIZTIA

Neureak bazakien zuri gar elgartu baten emaiten,  
 Eta berriz egin emaitza horren hartzekotan hobeki  
 Ahatziko du, Jauna, izana zitzatala ebatsirik.

## BIRIATE

Niketetz, onhartzen dut eskainia dautazun bake hori,  
 Dagiketan guzia da, Jauna, galdu dutana galdurik:  
 Ezin ordaingarria da 't' ezpaitakusat ez buruzagi  
 Zutaz gai datekenik ez nitaz gai dateken erregerik,  
 Gerlari ukho dagiot hemen eta berdin ezkontzari.  
 Bana jaioa nizan tronuaren ohorea maite dut  
 Orano. Badakit adixkidanza zuzen baten legea  
 Eta gur' erregek egin bezala eztakit erreinatzen.  
 Behar badut hek bezala zure manupean gobernatu  
 Niharen hondakinaren azpian lurperatu behar nizt.

Aldiz erreina badezaket ahalge 'ta senarrrik gabe,  
 Ondokorik eztut nahi, ezpada zur' Erroma, zu baizik.  
 Hautatuko duzu, Jauna, edo zur' elgargoak ezpadu  
 Estatua neure botere bakarrean ikusten ahal,  
 Aski duzu zur' eskuetan plaza hunen atxikitzea  
 Et' Erromatarren gatibutzat nago ni jadanik hemen.

POMPEIU

Anderea, gehiegi aberatsa duzu zuk arima  
 Haien ganik loriazko bake baten ez ukaitekotzat,  
 Eta han ikusiko da neure boterea aurdikia  
 Edo bertutea ohorean ezarriko dut. betikotz.

*Agerraldi VIII: Pompeiu, Ariztia, Biriarte, Kelzu, Artkaz, Thamira.*

POMPEIU

Egina dea, Kelzu?

KELZU

Ba, Jauna: traditzaleak ikusi  
 Ditu ehun besoz goiti aitahiltzearen gaztigatzen,  
 Eta zure manuz utzirik jende haserretu hari,  
 Deus erran gabe...

POMPEIU

Aski da hortan. Erroma da segurrean,  
 Eta neure hastiora sobera nituenek hertsatu  
 Beldurrik gabe neure ganik, eztemate beldurtzekorik.  
 Zuk, Anderea, gure gizandiarentzat onhar ezazu  
 Haren arima (\*\*\*) mendekatuak duen atsedean oso bat.  
 Goazen ospezko ehorztez zure manuaren emaitera,  
 Haren izena bezala aiphamendun eta omendunez,  
 Hihobi bat eraikirik, haren zorigaitzaren lekuko,  
 Haren loria 'ta gure bihotzminarena dadin izan.

\*

\*

\*

### Notes du traducteur.

(\*) Corneille écrit bien "Catalayud" pour le nom de la ville actuelle de "Calatayud" au sud-ouest de Saragosse province d'Aragon (Voir la *Postface*).

(\*\*) Le passage du "vous" au "tu" est un trait bien connu du style de la tragédie classique aux moments d'intensité tragique (exemple célèbre de la *Phèdre* de Racine). A la scène IV de l'acte V le reproche justifié d'Aristie s'adresse encore et sans indication du destinataire comme précédemment à Perpenna, organisateur du meurtre de Sertorius pendant le festin annoncé dès la scène I de l'Acte I. En tutoiement basque au féminin (voir Acte II scène I le dialogue de Viriate avec sa suivante tutoyée etc.) ce serait ainsi "Eta murgiltzen ahal daukon...". A la scène VI le même tutoiement d'Aristie s'adresse d'abord à Pompée, le mari qui l'a répudiée au profit d'Emilie. A Rome en latin, comme dans le basque pré-médiéval, le vousoiement au singulier était inconnu et tout le monde se tutoyait en toutes circonstances du haut en bas de la société, mais sans la distinction de sexe essentielle en basque: *duk* "tu (l')as" masculin, *dun* "tu (l')as" féminin.

(\*\*\*) La mort d'Aufide (*Aufidius*) blessé mourant sur scène est une invention de Corneille. Selon Plutarque le tribun Aufidius fut le seul des compagnons de Sertorius à échapper à l'attentat.

(\*\*\*\*) Le passage sans transition que fait Aristie du tutoiement rageur après le meurtre de Sertorius à l'égard de Perpenna à un vousoiement déférent après les explications de ce dernier et l'attitude de la reine Viriate, avec l'annonce de l'arrivée de Pompée pour revenir ensuite au tutoiement (scène VI), peut être compris comme une des faiblesses de conception au moins stylistique de cette tragédie.

(\*\*\*\*\*) Dans la religion romaine les "mânes" désignaient selon la définition commune "l'esprit divinisé" des défunts, supposé exister après la mort et objet du culte généralement nommé "le culte des morts ou des ancêtres" rendu par les vivants. Le mot basque *arima* étant "âme" pris au latin *anima*,

tenue pour immortelle en croyance religieuse, ne peut être qu'une traduction très approximative mais obligée du pluriel "mânes", même si chez les Latins *anima* désignait "la force de vie" avec toutes ses manifestations, propre aux seuls "êtres animés" ou "vivants", et qu'on distinguait de *animus* représentant "l'esprit, la pensée, la raison" (en basque *gogo*), comme l'explique clairement Lucrèce dans son *De rerum natura*.

\*

## POSTFACE

### 1. Résumé de l'action.

Toute pièce de théâtre, tragédie surtout ou tragi-comédie mais aussi comédie, de l'époque dite "classique" (XVIIe-XVIIIe siècles) est organisée selon la règle dite "des trois unités": unité de lieu, de temps et d'action. Exposée et expliquée d'abondance par les théoriciens de la dramaturgie, elle est résumée dans la célèbre formule de Boileau dans son *Art poétique* (1674):

"Qu'en un lieu, qu'en un jour, un seul fait accompli  
Tienne jusqu'à la fin le théâtre rempli."

La tragédie relate le dernier jour de Sertorius (*Sertorius Quintus* -121 -72): nommé tribun militaire (-97) en Ibérie (*Hispania* en latin) conquise par la République romaine à partir de -218 (prise de Sagonte -212, chute de Numance en -133), partisan de Marius contre la "dictature" de Sylla à Rome, gouverneur des Espagnes en -81 et ayant fait sécession en -83, il est assassiné en -72 par ses officiers passés au parti romain au cours d'un "festin" organisé par eux. Pompée (*Cneius Pompeius Magnus*) partisan du dictateur Sylla et commandant en chef (*imperator*) de l'armée romaine, consul en -70, est chargé de soumettre la rébellion de Sertorius dans le nord de l'Espagne: le dialogue entre les deux personnages à la scène I de l'Acte III où apparaît Pompée sur la scène constitue le point culminant du drame. Les deux personnages y font longuement concours de "romanité républicaine". Pompée qui a le dernier mot de la tragédie annonce l'érection d'un "tombeau" en l'honneur de Sertorius assassiné. L'armée de Pompée avait liquidé la révolte sertorienne par le siège terrible (-72) de *Calagurris Vasconum* (actuellement Loarre près d'Ayerbe en Haut Aragon) que Corneille n'évoque pas dans sa tragédie. (\*)

(\*) Cf. A. d'Oyhénart, *Notitia...* Liv. I chap. III, traduction de J.-B. Orpustan, Izpegi 2014.

### 2. Politique et amour.

*Sertorius* est une tragédie éminemment politique: politique par son sujet même de la rébellion contre le pouvoir de Rome et la

dictature de Sylla (*Lucius Cornelius Sylla*), politique par l'éloge constant de la "République" garante de la "liberté" et opposée de fait et de principe à toute monarchie depuis la chute du dernier roi étrusque de Rome Tarquin le Superbe (-509). En république romaine on n'est "roi" que durant une année (acte IV scène 2), c'est-à-dire "consul" ou chef de la République et des armées. Le projet de mariage entre Sertorius ou son "lieutenant" Perpenna et Viriate reine de Lusitanie imaginée par Corneille est une question difficile que l'histoire romaine posera plus tard entre Cléopâtre reine d'Egypte et Jules César, avant l'assassinat de ce dernier au Sénat (ides de mars -44).

Ce "républicanisme" romain n'est pas sans écho dans la France monarchique qui vient de sortir de la Fronde des parlements et des princes (1648-1651): 1648 barricades à Paris, 1649 Mazarin 1er ministre banni, exécution de Charles Ier en Angleterre et régime de Cromwell., retour et triomphe de Mazarin en 1653. Après *Don Sanche d'Aragon* (1649), *Andromède* (1650), *Pertbarite* (1651) Corneille s'est éloigné du théâtre. Il y revient avec *Héraclius* (1658), *Œdipe* (1659), puis *Sertorius* joué en juin 1662 au théâtre du Marais par la troupe de Molière etc.

Les relations amoureuses et matrimoniales étroitement mêlées aux ambitions et raisonnements politiques font un curieux contraste qui peut surprendre l'auditeur ou le lecteur, bien que Corneille ait prévenu qu'on ne trouverait dans sa tragédie "ni tendresses d'amour ni emportements des passions" (*Au lecteur*). Mais pour les contemporains de la Fronde puis des amours du jeune Louis XIV et de Marie Mancini nièce de Mazarin nécessairement rompues pour le mariage tout politique entre cousins germains avec l'infante d'Espagne Marie-Thérèse, mettant fin à des décennies de guerre entre les deux Etats, "politique et amour" et "politique et mariage" étaient des réalités bien perceptibles.

Corneille a introduit dans sa tragédie deux personnages féminins que l'épisode espagnol de Sertorius ne lui offrait guère:

l'une est "Aristie" qui apparaît à l'acte I scène 3, nom qu'il dit avoir préféré à l'historique *Antistia* (\*) comme "plus doux à l'oreille", femme répudiée de Pompée pour épouser Emilie fille de la femme de Sylla. Aristie épouserait bien le brillant Sertorius. Le meurtre de ce dernier et le hasard de la mort en couches de la "triste Emilie" (Acte V scène 2) enceinte non de Pompée mais de son premier mari, avec la retraite de Sylla à Cumès, font que Pompée et Aristie, à la dernière scène de l'acte V, se raccommodent, ce qui est aussi une invention de Corneille. Après Emilie Pompée a épousé Mucia Tertia, puis Julia fille de Jules César (son compère dans le premier "triumvirat" avec Crassus) et enfin Cornelia.

(\*) La famille ou "*gens des Anthestii*" d'origine plébéienne s'était élevée jusqu'aux plus hauts rangs de l'administration romaine dès le Vème siècle avant l'ère commune. Antistia, la fille d'Antistius tribun de la plèbe en -88 et assassiné sur l'ordre de Marius en -82, avait épousé Pompée en -86, jusqu'au divorce en -82 où Pompée doit épouser Emilie (*Æmilia*) belle-fille du dictateur Sylla dont il est partisan.

L'autre "héroïne" est "Viriate" reine de Lusitanie qui était le nom de la plus grande partie du Portugal, invention monarchique plus que discutable comme on verra, parce que Corneille en fait une descendante y compris onomastique de *Viriatus* (-180 -139) berger lusitanien qui organisa une armée contre les légions romaines colonisatrices et les vainquit plusieurs fois avant d'être assassiné durant son sommeil en -139. Viriate avec sa "dame d'honneur" Thamire apparaît à l'acte II scène 1. On la suppose célibataire et épouserait bien aussi "le grand Sertorius" qui tâche de lui faire accepter à sa place son "lieutenant" et futur meurtrier Perpenna en vantant sa filiation royale. Le dénouement à la fois malheureux et heureux, assassinat de Sertorius et punition de Perpenna par les soins de Pompée, mais reconstitution du couple Aristie-Pompée, laisse le sort de la reine Viriate dans la parfaite incertitude. Quant à Pompée assassiné en -48 sur l'ordre de Ptolémée XII roi d'Égypte frère de Cléopâtre, Corneille en avait fait sa tragédie *La mort de Pompée* (1643).

Tous les personnages de *Sertorius* sont réunis pour cette action tragique au château fort ou palais de Calatayud "au pied des Pyrénées" (acte V scène 1) en Aragon, au sud-ouest de Saragosse, sur le "Río Jalón" affluent de l'Ebre.

### 3. Histoire et vraisemblance.

Calatayud dont Corneille a copié le nom "Catalayud" porte un nom arabe importé par les Maures après leur conquête de l'Espagne wisigothique en 711. La ville prend le nom du château fort qu'ils y ont créé en 716: *qala(t)* "château fort" et *Ayub* forme arabe pour le "Job" biblique, soit "château de Job". Corneille précise que c'était, au 1er siècle avant l'ère commune où se déroule la tragédie, l'emplacement de la ville de "Nertobrige" ou Nertobriga, sans préciser que dans l'Espagne celtibère il y avait eu au moins deux villes de ce nom: l'une la plus célèbre en "Béturie" proche de la Lusitanie (Portugal) dans l'actuelle Andalousie, l'autre dans l'Espagne proche de la Méditerranée, qui est la ville aragonaise ou "tarragonaise": on la situe sur le même cours d'eau Jalón mais bien plus au nord-est dans la région délimitée par les communes de Ricla, La Almuña de Doña Godina, et Calatarao, ce dernier nom rappelant précisément celui de Calatayud. On peut se demander si Corneille ne fait pas une double confusion: 1° en prenant Calatayud pour Calatarao, 2° avec Nertobriga de la Bétique où précisément Viriatus le défenseur de la Lusitanie contre les Romains avait combattu.

En réunissant tous les personnages de la tragédie dans ce château du Calatayud aragonais où l'on ne voit pas ce que vient faire une reine de la lointaine Lusitanie pour y parler de ses "Etats" Corneille a certainement outrepassé la vraisemblance historique. Il l'a fait aussi en imaginant une continuité dynastique et onomastique royale du défenseur de la Lusitanie contre les Romains Viriatus jusqu'à la reine Viriate. L'histoire ne dit pas si l'*Hispania* préromaine était répartie, comme l'Europe médiévale et la moderne du XVIIe siècle, en Etats constitués monarchiques et républicains.

Le "berger Viriathé" en latin "Viriatius" né vers -180 assassiné pendant son sommeil par des Lusitaniens soudoyés par Rome en -139, avait organisé autour de lui une troupe de rebelles à la colonisation romaine et remporté contre les légions romaines une série de victoires. Peu après son assassinat en -139 la dernière révolte des Celtibères contre Rome prend fin à la destruction de Numance (-133) et l'action de Viriatius n'a plus de suite, ni sa lignée s'il en a créé une par ailleurs inconnue. Il est un héros du poème portugais de Camoens écrit au XVI<sup>e</sup> siècle *Os lusiadas* ou "Les Lusiades". Étrangement le nom se retrouve dans la section de la ville de Hendaye dite "Biriathou" (*Biriathu* en basque) dans les Pyrénées-Atlantiques en frontière d'Espagne, pas loin des inscriptions d'époque latine de la région (Guétary, Hasparren), d'Irun et Oiasso (Oyharzun).

#### 4. Style et traduction.

Avec *Sertorius* Corneille retrouve à la fois la "matière d'Espagne", qui après *L'Illusion Comique* (1635) et le personnage de *Matamore* le "tueur de Maures" avait culminé avec *Le Cid* (1637), puis *Don Sanche d'Aragon* (1649), Espagne du nord d'Aragon en Navarre, et celle de "Rome" après *Horace* et *Cinna* (1640), *Polyeucte*, *La Mort de Pompée* (1643) etc. Les noms de lieux, peuples et personnages offrent un premier obstacle au traducteur s'il estime utile ou nécessaire de les adapter tant soit peu à la langue de traduction, ici le basque. Ces noms de lieux et de peuples anciens cités par Corneille, quoique tous "francisés" selon la mode du temps, donnent au texte une discrète "couleur locale": pour Rome et l'Italie on a l'Aventin, le Pô, le Tibre et l'Etrurie pays des anciens Etrusques; pour l'Ibérie c'est les Espagnes ou l'Espagne, la Lusitanie, le Tage et les peuples dits Ilergètes qui auraient occupé le centre de l'actuelle Catalogne, et Turdétans situés dans le val du Guadalquivir au sud de l'Espagne (Acte IV scène 3).

Le nom de la reine de Lusitanie "Viriate" a été laissé *Biriate* avec une finale *-te* qui peut sembler archaïque pour le féminin,

alors que le féminin latin est *-a* (cas nominatif de 1ère déclinaison) comme dans "Ariztia, Thamira". Dans les noms masculins latins marqués *-us* au nominatif (cas sujet en 2ème déclinaison) la traduction supprime le *-s* final pour faire, comme "Biriatu" (Biriadou) déjà cité, "Sertoriu", "Pompeiu" etc. (\*), et de même "Mariu" bien que le nom "Marius" soit très connu ailleurs en littérature française et pas seulement latine. Dans "Pompeiu" pour Pompée on a conservé la suite *-mp-* devenue inhabituelle dans l'écrit basque qui est phonétique (tous les signes écrits se prononcent) comme la latine, parce que la prononciation *-NP-* serait contraire à la phonétique du nom d'origine, là comme dans d'autres noms (exemple de "Cambo" etc.). C'est sur cette finale *-u* que s'ajoutent les suffixes de la "déclinaison" basque pour exprimer toutes les fonctions grammaticales autres que l'absolutif ou nominatif singulier (suffixe *-a* pour les noms communs), qui est le cas sujet d'intransitif et aussi objet direct de transitif. Dans les noms propres de lieux et personnes le nom sans suffixe *-a* vaut absolutif.

(\*) On attribue au séjour de Pompée dans le nord de l'Espagne pour réduire la révolte de Sertorius le nom de la ville de "Pampelune", où se crée au IXe siècle après les Asturies un des tous premiers Etats monarchiques post-carolingiens contre l'occupation des Maures, qui deviendra la Navarre: avec le nom *Pompeius* au génitif *Pompeii* "de Pompée" et l'accusatif grec *polin* familier aux Latins ce serait *Pompeii-poliin* "la cité de Pompée" (de même origine gréco-latine "Sébastopol" sur la Mer Noire etc.), "Pampelune/Pamplona" nom officiel depuis lors, mais inutilisé en basque où c'est *Iruña/Iruñe* sur l'ibéro-basque *ili/iri* "ville".

Le vocabulaire figuré de l'époque classique pour exprimer en particulier les notions matrimoniales et amoureuses, comme "objet" rarement traduisible par *gauza* "chose" (c'est le latin *causa*), ou "hymen" qui n'est jamais au sens propre mais pour "amour, projet amoureux et matrimonial", forme un obstacle incommode à la traduction, basque en particulier où, même si les sens figurés abondent comme partout, les mots désignent d'abord et généralement des réalités concrètes. On ne sera donc

pas étonné que l'équivalent trop banal utilisé le plus souvent pour "hymen" soit *ezkontza* "mariage" ou le nom verbal correspondant *ezkontze* "marier".

#### 5. Versification et prosodie.

Le "mètre" habituel du théâtre classique versifié est l'alexandrin de 12 syllabes et de 13 si la dernière syllabe est "muette" (avec "e muet") pour la rime dite "féminine", alternant obligatoirement avec la rime sans "e muet" dite "masculine", deux par deux en rime "suivie". Ce vers n'a aucun correspondant possible en basque où aucune syllabe ou voyelle n'est "muette". D'autre part la déclinaison basque qui peut allonger considérablement le nom de base par suffixation, et la conjugaison verbale dont la plus grande partie est faite de verbes auxiliés ou "composés", et obligatoirement pour tous les verbes basques conjugués à initiale consonantique (sauf "yod" écrit *j*), augmentent nécessairement et le plus souvent la teneur syllabique du texte. Avec ces contraintes, la versification utilisée en traduction passe ici à 18 syllabes régulières. Encore arrive-t-il assez souvent que la traduction littérale d'un vers peut être ou trop courte ou trop longue pour être complète et exacte en 18 syllabes. Il revient alors au traducteur d'omettre ou d'ajouter des mots sans modifier la signification générale. Dans ce cadre on ne s'est pas privé parfois de faire ou des rejets ou des enjambements d'un vers à l'autre, chose particulièrement rare dans le texte d'origine et le style versifié cornélien.

Pour la rime il n'aurait pas été absolument impossible mais néanmoins risqué pour la fidélité au sens textuel de faire des rimes suivies deux à deux, alternant par exemple les rimes basques dites "féminines" ou "masculines" ou "neutres" selon la définition et la pratique d'Oyhénart au XVIIe siècle, contemporain de Corneille. Ce système complexe et peu pratique surtout pour le domaine dialectal navarro-labourdin peu ou très peu accentué a été écarté. Pour donner néanmoins à la suite de vers de 18 syllabes une certaine régularité formelle et ne pas les laisser en simples vers "blancs" il a été choisi, comme dans la traduction

basque du *De rerum...* de Lucrèce (J.-B. Orpustan, *Naturaz*, Haritzeta 2021, version corrigée en ligne [www.tipirena.net](http://www.tipirena.net) III Traductions littéraires), de faire alterner régulièrement des finales vocaliques et consonantiques. Ce ne sont des "rimes" à aucun titre, d'autant plus que par suite en particulier des formes suffixées nécessairement répétitives de la déclinaison et de la conjugaison basques, le degré de variabilité phonétique de ces finales alternées est peu considérable.

J.-B. Orpustan

## AZKEN-SOLAS

## 1. Egintzako laburpena.

Aro "klasika" (XVII-XVIII-garren mendeak) dioteneko antzerti oro bereziki tragedia edo tragi-komedia bana komedia ere "hirur batasunetako" erregelaren araura moldatua da: lekuko, aroko 'ta egintzako batasun. Antzertigintzako theorialariez nasai-ki zabaldua 'ta aztertua izanik, Boileau-ren *Art Poetique*-ko (1674) erranbide ezagunean emaiten da laburpenez:

"Leku batean, egun batez, egintza betegin bakar batek datxikala antzokia beterik".

Tragediak erakusten du Zertoriuren (*Sertorius Quintus* -121 -72) azken eguna: armadako tribun izendaturik (-97) Errepublikar erromatarrek -218-etik (-212 Sagunto-ren hartzea, -133 Numanziaren erortea) hartua zuen Iberian (latinez *Hispania*), Mariuren alderdikoa Zilaren "diktatura"-ren kontra, Espainietako gobernari -81-ean eta Erromatik berezirik -83-an, bere armadako buruzagi alderdi erromatarra itzuliez erhaina da -72-an hauek antolatua zuten "aphairu" batean. Pompeiu (*Cneius Pompeius Magnus*) Zila "diktatorearen" alderdikoa 'ta Erromako armadaren buruzagi (*imperator*), -70-ean konsul, Espainia ipharraldean Zertoriu-ren jazartzearen menperatzeaz kargatua da: bi buruzagien arteko elgarrizketa III-garren egintzako lehen agerraldian antzertiko gune goren-gorena da. Hor egiten dute Erromako errepublikartasunaz zeingehiagoka luze bat. Pompeiuk baitu tragediako azken hitza Zertoriu erhainaren ohorezko hilhobi baten eraikitzea iragartzen du. Pompeiuren armadak garbitua zuen Zertoriuren jazarraldia *Calagurris Vasconum*-go (orai Loarre Goi-Aragoneko Aierbe ondoan) setio izigarrian (-72), Corneille-ek tragedian aiphatzen eztena. (\*)

(\*) Ikus A. Oyhenart, *Notitia...* Lib. I kap. III, J.-B. Orpuztanen itzulpena frantzesez, Izpegi 2014.

## 2. Politika 'ta maitasuna.

*Zertoriu* goretetik politikako tragedia da: politikakoa Erromako boterearen eta Zilaren (*Lucius Cornelius Sylla*) diktaturaren

kontrako jazartzeaz, politikakoa "Errepublikaren" laudorio jarraikiaz, "libertatearen" bermagailu 'ta monarkia guzien egiazko 'ta ideiazko etsai Erromako azken errege etruzkoa edo "etruriarra" Tarkin Burgoia aurdiki zenetik -509-an. Erromako errepublikan ehor ezta "errege" urte batez baizik, erran nahi da "konsul" edo Errepublikaren eta armadaren buruzagi. Corneille-rek asmatua duen Zertoriuren edo haren ordari Perpenaren ezkontzak Biriarte Luzitaniako erreginarekin ixtorioko neke zail bat jarriko du berantago Kleopatra Egiptoko erregina 'ta Juliu Kaezarren artean, hau erhain bano lehen Zenatuan (ephaileko idetan -44).

Erromako "errepublikartasun" hori ezta oiharzunik gabe parlamentuen eta prinzen "Abaila" dioten nahasmendutik (1648-1651) jalgi berria den Franzia monarkiakoan: 1648 barrikadak Parisen, 1649 Mazarin lehen minixtroa bahitua, Xarles lehenaren hiltzera kondenatzea 'ta Cromwell-en gobernuua Angeleterran, 1653-an Mazarinen itzultzea 'ta triunfa... *Don Sanche d'Aragon* (1649), *Andromède* (1650), *Pertharite* (1651) tragedien ondotik Corneille antzokitik urrundu da. Berritzultzen da *Héraclius* (1658), *Ædipe* (1659) eta gero *Zertoriu*-rekin, 1662-ko ekhainean Moliere-ren jokariez emana "Marais"-ko antzokian etab.

Maitasuneko 'ta ezkontzako gai politikako xede goren eta arrazoinamenduekin hertsiki josiek egiten dute entzulea edo irakurlea ustegabetzen ahal duen kontramolde bitxi bat, Corneille-rek aitzinetik jakin-arazia duen arren ezteela "ez amodioko xamurtasunik, ez pasionetako haserretzerik, ez erakustaldi ospatsurik, ez ixtorio hunkigarririk aurkituko" (*Irakurtzaleari*). Bana "Abailako" arokidentzat eta gero Luis XIV-garren gaztearen eta Marie Mancini Mazarinen ilobaren arteko sendimenduen arokidentzat, bortxaz hautsiak izan behar baitziren Maria-Thereza Espainiako infantarekin lehen gusien arteko ezkontza osoki politikakoaren egiteko, urteak hamarka iraunak zituzten gerlen bururatzeko bi Estatuaren artean, politika 'ta maitasuna" bai eta "politika 'ta ezkontza egiazko gauza ontsa ohargarriak ziren.

Corneille-rek ezarri ditu bere tragedian Zertoriu-ren ixtorio espainiarrak guti eskaintzen zauzkon bi emazte: bat Egitaldi I Agerraldi 3-an agertzen den "Ariztia", "beharrira eztiago bezala" *Antiztia* (\*) ixtoriokoari hautatu daukola dion izena, Pompeiuren ezkontidea, "Emilia" Zilaren errenarekin ezkontzeko utzi zuena. Ariztiak ezkon lezake gogotik Zertoriu distiratu. Hunen erhaintzeak eta "Emilia trixtearen" (Egitaldi V erakustaldi II) hiltzeak haur ukaitetik ez Pompeiutren bana aitzineko senarraren ganik, Zilaren erretirarekin Cumes-era, dagite Pompeiu ta Ariztia V-karren egitaldiko azken agerraldian berrakomeatzen direla, Corneille-rek asmatua duen gertaldia. Emiliaren ondotik Pompeiuk ezkondu zituen Mucia Tertia, gero Julia, Juliu Kaezar lehen "triumvirat" ("Crassus"-ekin) diotenean bere lagunaren alaba, 'ta azkenik Cornelia.

(\*) Familia hori latinez "*gens Anthestii*" jende xehen lerrotik abiatu aro arruntaren aitzineko V-garren mendeko errepublikako kargu gorenetera heldua zen. Antiztiuz "plebako" tribun -88-an eta -82-an Mariuren manuz erhainaren alaba Antiztia Pompeiurekin ezkondua zen -86-an, eta -82-an berezia, orduan Pompeiuk ezkondu behar baitu Emilia haren alderdikoa zen Zilaren errenarekin.

Bigarren "emalehena" da Biriarte, Portugaleko zati handiena hartzen zuen Luzitaniako erregina, monarkiako asmakuntza eztabadagarri bano gehiagokoa ikusiko den bezala, Corneille-rek *Biriatu* (-180 -139) artzain luzitaniarraren ondoko bat egiten baitu izena barne. Biriartuk armada bat moldatua zuen Erromako gerlaritalde kolonizatzaileen kontra 'ta garhaituak zituen aldi bat bano gehiagotan, lo zagolarik erhaina izan bano lehen -139-an. Biriarte bere "ohorezko andere" Thamira "nokutzen" duenarekin egitaldi II-ko agerraldi lehenean agertzen da. Ezta iduriz ezkondua eta "Zertoriu handia"-rekin ezkondu nahi luke, nahiz hunek bere lekuan onharrarazi nahi daukon bere ordari ta geroko erhaile Perpena (Biriarte maite duena ere), hunen ethorki erregetarra goraihatuz.

Bururapena zorgaitzekoa ta zorionekoa da aldi berean; Zertoriuren erhaintzea 'ta Perpenaren zigortzea Pompeiuren

manuz, bana Ariztia-Pompeiu senar-emazteak berbateratzen dira, Biriarte erreginaren geroa segurtamen gabea utzirik osoki. Pompeiuri doakonaz, -48-an erhaina da Proleme XII Egiptoko errege Kleopatraren anaiaren manuz: Corneille-rek egina zuen hortaz *Pompeiuren heriotzea* (1643) tragedia.

Egintza hortako *Zertoriu*-ko jokari guziak Kalataiud-eko gaztelu edo palazioan "Pirinetako oinetan" (egitaldi V agerraldi 1) bilduak dira, Aragonan, Zaragozako hego-sartaldean, Iberuaren ethorgailu "Río Jalón" diotenaren bazterrean.

### 3. Ixtorioa 'ta egia-itxura.

Corneille-rek "Catalayud" idatzia duen "Kalatayud" hiriak izen araba bat du Mairuek ekharria 711-an Espainia bizigota beretu zuten ondotik. Hiriak hartua du 716-an eraiki zuten gazteluaren izena: *qala(t)* "gaztelu" ta *Ayub* Bibliako "Job" haren molde araba. Corneille-rek dio tragedia gertatzen den aro arrunteko mende lehenaren aitzinean "Nertobriga" hiriaren lekua zela, erran gabe Espainia zeltiberiarrean izen hortako bi hiri bederen bazirela: bata ezagunena Beturian Luzitaniatik hurbil oraiko Andaluzian, bertzea Mediterraneatik hurbil den Espainian, Aragonako (edo Tarragonako) hiria: Jalón ibai bereko hegietan lekurtzen da bana ontsa gehiago iphar-sortaldera, "Riela", "La Almuña de Doña Godina" ta "Caltarao" (izen hunek bereziki orhoit-arazten du "Kalataiud") herriek mugatzen duten herrialdean. Galda daiteke ez ote duenez Corneille-rek nahasmendu bikun bat egiten: 1º Kalatayud hartuz "Calatarao"-ren orde, 2º Betikako Nertobriga-rekin, hain zuzen Biriatu Luzitaniaren zaintzaleak Erromatarren kontra hor baitzuen gudukatu.

Tragediako jokari guziak eta urrundik Luzitaniako erregina bere "Estatuez" mintzatzeko zertara dathorren ikusten ezten Aragonako Kalataiud gazteluan bilduz, Corneille-rek gaintitzen du segurki ixtorioko egia-itxura. Egina du ere erret-ondoriotasun ethorkizkoa bezala izenekoa asmatuz, Biriatu Erromatarren kontra Luzitaniaren zaintzaletik Biriarte erreginerano. Ixtorioak eztu erraiten aro erromatar aitzineko *Hispania*, Ertaroko ta XVII-

garren mende berriko Europa bezala, monarkiako ala errepublikako Estatu moldatu batzuetan banakatua zenez.

Biriatu (latinez *Viriatus*) "artzain" -180 inguruan jaioak eta -139-an lo zelarik erhainak Erromak bere alderdira itzuliak zituen Luzitaniar batzuez, kolonizatze erromatarren kontra jazarle armada bat moldatua zuen ta gerlaritalde erromatarren kontra garhaipen andana bat irabazia. Haren erhaintzetik -139-an guti berantago Zeltiberiarren jazartzea Erromaren kontra bururatzen da Numanziaren suntsitzearekin (-133) eta Biriaturen egintzak eztu ondoriorik, ez egin baldin badu ezaguna ezten haren leinuak. Biriatu XVI-garren mendean idatzi zen Camoens-en *Os Lusíadas* poema potugeseko gizandi bat da. Aski bitxiki izen hori aurkitzen da "Biriatu" dioten Hendaia herriko auzoalde batean, Espainiako mugan, inguruko idazki latinetarik (Getaria, Hazparne), Irundik eta Oiazotik (Oiharzun) ez urrun.

#### 4. Idatzara 'ta itzulpena.

Corneille-rek *Zertorium*-rekin berraurkitzen ditu aldi berean 'Espainiako gaia', *L'Illusion Comique* (1635) komediaren eta "Matamore" ("Mairu hiltzale") hortako jokariaren ondotik, gorenera heldua *Le Cid* (1637) tragi-komediarekin, gero *Don Sanche d'Aragon* (1649), ipharraldeko Espainia Aragonetik Nabarrara, ta "Erromakoa": *Horace*, *Cinna* (1640), *Polyeucte*, *La Mort de Pompée* (1643) tragedien ondotik eta b. Leku, jendalde 'ta jokarien izenek lehenbiziko traba bat eskaintzen daukote itzultzaleari, den gutienik itzulpeneko hizkuntzari, euskarari, horien egokitzea baliagarri edo baitezpadako dela estimatzen badu. Corneille-rek ezarri lehengo leku 'ta jenden izenek, guziak "franzestuak" aro hartako moldean, bademate "lekumargo" begiratu bat: Erroma ta Italiako aurkitzen dira Abentina, Poa, Tiberua 'ta Etruria edo lehengo Etruzkoen herria; Iberiako Espainiak edo Espainina, Luzitania, Tagoa ta "Ilergetak" zeritzeten jendeak oraiko Kataluniako eridigunea hartzen omen zutenak, eta Turdetarrak Guadalquivirko ibarrean Espainia hegoaldean.

Luzitaniako erreginaren izena utzi da "Biriarte", emean zaharrarako iduritzen ahal duen *-te* azkenarekin, latineko eme marka *-a* delarik (lehen deklinabide latineko nominatibo), hala nola "Ariztia, Thamira". Izen latin arretan *-us* (bigarren deklinabideko egile) nominatiboan itzulpenak *-s* azkena ezabatzen du eginez "Biriatu, Zertoriu, Pompeiu" eta b. (\*), ta berdn "Mariu" nahiz "Marius" izena literatura frantzesean ere ez bakarrik latinean azkarki ezaguna den. "Pompeiu" izenean latinekoa bezala osoki ahozkarakoa den euskal-idazkian ohigabekoa bilakatu den *-mp-* jarraipena atxiki da, *-NP-* ahozkatzea hastapeneko ahozka moldearen kontrakoa lizatekelakotz, izen hortan bertze batzuetan bezala ("Cambo" eta b.). Azken *-u* hortan lotzen dira euskal-deklinabideko atzizki atsolutibo edo nominatibo bakunekotik (*v-a* atzizkia izen arruntetan hori baita iragangaitzeko egile 'ta iraganeko jasailearen marka) bertzelakoak. Izen berezietan (leku ta jende izen) izenak *-a* atzizkia gabe atsolutiboa balio du.

(\*) Zertoriuren jazartzearen hausteko Espainia ipharraldean Pompeiuren egonaldia emaiten zako "Pamplona" hiriaren erdal-izena, hor egiten baita karolingiarren ondotik IX-garren mendean, Asturiekin, Mairuen kontra lehenbiziko Estatu monarkiako bat Espainian, Nabarra bilakatuko dena: *Pompeii* latineko genitiboarekin eta *polin* grekako akusatibo Erroman ezagunarekin (molde berean Sebastopol eta b.) "Pompeiuren hiri" lizate, erdaraz "Pamplona/Pampelune" izen ofiziala geroztik, bana euskaraz ez erabilia *Iruña/Iruñe* baita, *ili/iri* iberiar-euskaldunarekin.

Aro klasikako hiztegi itxuratuak, bereziki ezkontza 'ta maitasuneko gauzen erraiteko, hala nola "objekt" *gauza* hitzaz bekan itzulgarria edo "hymen" ehoiz eztena erran-nahi zuzenean bana "maitasun, amoreko ta ezkontzeko xede" hitzen orde, itzulpeneko traba erabilgaitza egiten du euskarako bereziki, hor erran-nahi itxuratuak orotan bezala nasai izanik ere, hitzek gehienik eta orotan egiazko gauzak erraiten baitituzte. Ezta beraz ustegabetuko gehienean erabili den hitza "hymen"-en balio bereko *ezkontza* izen edo *ezkontze* aditz-izen ohikoegia baldin bada.

## 5. Neurthitzkintza.

Neurthitzezko antzerti klasilako neurri ohikoa erdaraz "alexandrin" diotena da, 12 silabakoa edo 13-koa azken silaba "mutu" delarik ("e mutu" diotenarekin egina) errima emean, nahitez aldizkaturik "e mutu" gabeko errima "arrarekin", birazka errima jarraikian. Neurthitz horrek eztu berdinek batere ukaiten ahal euskaran hor silaba edo mitzokin "muturik" ezteletakoz. Bertzalde izen xoilak atzizkiez handizki luzatzen ahal duen euskal-deklinabideak, eta aditz jokabideak zati handiengan aditz lagunduez egina baita 'ta osoki joiletik ("yod" *j* idatzia salbu) hasten diren aditz guzietan, baitezpada 'ta gehienetan handitzen dute idazkiaren silaba izaria. Bortxu horiekin itzulpeneko erabili den euskal-neurthitza 18 silaba zuzenakoa da. Hala ere aski usu gertatzen da neurthitz baten itzulpen zuzena izan daitekeela edo laburregi edo luzegi 18 silabatan osoa ta zuzena izaiteko. Orduan itzultzaleari dago hitz batzuen sartzea edo ekhentzea orotako erran-nahia aldatu gabe. Egitura horren barnean ezta batzuetan egon neurthitz batetik bertzera aitzin eta gibel-jauzi batzu egin gabe, gauza bereziki bekana idazki lehenean eta Corneille-ren neurthitz idatzaran.

Errimako etzen osoki ezina izanen bana hala ere idazkiko erran-nahiaren zuzentasuneko irriskuduna, bi errima jarraikien egitea, aldizkatuz euskal-errima "emeak" edo "arrak" edo "bierartekok" XVII-garreneko Oihenart Corneille-ren arokidearen mugabide 'ta egintzari jarraikiz. Molde batzun eta guti erabilgarri hori, oroz gainera euskaki nabar-lapurtarra bezala guti atzentoduna den batean, baztertu da. Hala ere 18 silabako neurthitz jarraikietan moldeko erregulartasun baten ezartzeko 'ta "neurthitz zuriak" diotenetan ez uzteko, Lukreziuren *De rerum natura*-ko itzulpenean bezala (Ikus J.-B. Orpustan, *Naturaz*, Haritzeta 2021, molde zuzendua liñan [www.tipirena.net](http://www.tipirena.net) III traductions littéraires), azken silaba mintzokidun eta joiledunen aldizkatzea hautatu da. Eztira nola nahiz ere "errimak", are gehiago euskal-deklinabideko 'ta aditz jokatuen atziki baitezpada

errepikarien ondorioz azken silaba aldizkatu horien aldakortasuna guti ohargarria delakotz.

J.-B. Orpustan

## AURKIBIDEA

Irakurtzaleari -----	orr. 2
Egitaldi lehena -----	orr. 6
Egitaldi bigarrena -----	orr. 18
Egitaldi herena -----	orr. 31
Egitaldi laugarrena -----	orr. 45
Egitaldi borzkarrena -----	orr. 60
Notes du traducteur -----	orr. 75
Postface -----	orr. 77
Azken-solas -----	orr. 85

\*

\* \* \*

# Traductions diverses de textes cornéliens ...

## I. Tragedietan ...

### 1. "Zidia"-ko bersuak (Corneille 1637). Egintza I, agerraldi VI.

Jaun Roderik

"Bihotza zauriturik ondorano  
Ustegabe bezain ukhaldi hilgarriaz,  
Aharra zuzen bat mendekatu beharraz,  
Zuzengabe latz baten gai zorigaitzeko,  
Geldirik nago 'ta gogo aurdikirik  
Utzi zait ukhaldiaz hilik.  
Neure garra zoan sariztatzera,  
Oi Jainkoa, zeinbat bitxi den!  
Laido huntako aitak du ofensa,  
Ximenaran aitak du ofensatzen!

Zeinbat gogor sendi dutan gudual  
Maitasuna ohorearen kontra doat,  
Aita mendekatuz galduko dut maite bat:  
Hark bihotza suzta, hunek gibel besoa.  
Hautu gaizkorra: edo garra saldu behar  
Edo ahalez bizia har:  
Bietan gaitz hunek mugarik eztu.  
Oi Jainkoa, zeinbat bitxi den!  
Behar dea laido bat ez zigortu?  
Behar dea zigortu aita Ximenaren ?

Aita, maitatu, ohore 't' amore,  
 Bortxu noble gorra, maitagarria betan,  
 Atseginak oro hilik loria histuan,  
 Batek dema zorigaitz, bertzeak ahalge.  
 Arima on ta batean maitalearen  
     Maite ta bortitz itxaropen,  
     Neure zori gorenaren etsaia,  
     Burdina, ezartzen nauk penan:  
     Eman haita garbi dezatan ohorea?  
     Eman haita Ximena gal dezatan?

Hobe heriora laster egite,  
 Zor diot hau maiteari aitari bezainbat:  
 Mendekatu gabe gaitzespen dakhart orobat,  
 Mendekatuz dakhart haren herra ta haserre,  
 Dutan itxaropen eztienera traidore nagi batak,  
     Ta harentzat ez gai bertzeak.  
     Gehitzen da gaitza nahiz sendatu,  
     Pena daut guziak bikuntzen.  
     Goazen, arima, hil behar badugu,  
     Ximena gaitzitu gabe hil gaiten!

Hil hartu gabe arrazoin neurea?  
 Herio bila joan loriako hoin hilkor?  
 Jasan Espainiak neure gain dezan eror  
 Etxean gaizki ohorearen zaintzea?  
 Errespetu maitasun bat arimak galdurik  
     Galdu dakusana segurrik?  
     Eztentzugun gogo biltzale hori,  
     Eztaut pena baizik laguntzen!  
     Goazen, besoa, ohorea garbi,  
     Ximena denaz geroztik galduren.

Baietz, gogoak zautan huts egina:  
 Oro zor dut aitari maiteri bano lehen,  
 Hil nadila gudukan ala hil trixtatzen,  
 Odola huts ixuriko, ukan bezala.  
 Ja salatzen niz sobera ez axolatzez,  
     Goazen mendekura lasterrez,  
 Dudan hoinbat egonik ahalgeti,  
     Ezkauden gehiago penan,  
 Egun ofensa egin da aitari,  
 Eta du Ximenaren aitak eman."

\*

## 2. Herakliu, ekhaldeko emperadore 1647

Egitaldi V, agerraldi I

Herakliu

Bi prinzen artreko zer argigabe  
 Bitxiak dagien bi adixkide  
 Aharran dematzan nahasmendu bat!  
 Aita batek eztaki nun har bera,  
 Bi-biak ausartzenago direla  
 Ukhatuz semearen izen gaitz bat,  
 Gehiago dute berek utzia  
 Ukan segeretuen entzute bat.

Leontinak hainbatean maltzurki  
 Nau fagoratu edo bairan utzi,  
 Nun gure zortea baitu iluntzen.

Hortan ikasirik ukan nuena  
 Botere burgoiko desafio da  
 Indar hutsal hau ezpaitu zinesten,  
 Eta badut neure sortzeaz duda  
 Herioa zaitanean ezesten.

Tirano burgoiak balakatzen nau  
 Erakusten zaitala hain xamurtu  
 Nun asaldan baitut bihotza hortaz:  
 Dagitanean othoi eta othoi  
 Adixkidanzak hain garbi diduri  
 Aitzindik ezpainezake jaiduraz  
 Sortzetik duenez jakiten sendi,  
 Ala neur' oneriztean ohitzaz.

Izanez uste hori dudazkoa  
 Haren aldera herrak banerama  
 Eztutanak zuzenki begiratzen.  
 Ezkertze dautan horrek egin nahi  
 Haserrea daut hatzeman, nahasi,  
 Deusen garbitzera eniz ausartzen  
 Aita baten artha baitut ikusi  
 Nihaurena dautanean ekhentzen.

Hik Mauriziuren itzal handia,  
 Eraduk ezak arima neurea  
 Ilunak dagion erroitz hegian!  
 Lagun nezak erakusten hobeki  
 Eztaukala Jainkoak sort-arazi  
 Prinze hain eskasa heure seme  
 Edo izaite nuena merezi,  
 Ezpaniz ere horlako egian.

Lagun ezatak ahultzen den herra,

Eta hir' eskatimako bikundua  
 Heriotzeko sukar noble hunek  
 Erakusten dik ... Bana entzuna niz,  
 Horra laguntza (...)

### 3. Aragonako Zantxo Jauna

Komedia heroika  
 1649

Egitaldi V, agerraldi VII

Doña Leonor  
*Billet bat idekirik irakurtzen du:*

"Tirano bat baira nahiz bairatzen zitut zuhaur.  
 Seme deitoratua berriz ikusiren duzu:  
 Hutsak korona dezoke burura noizpait itzul  
 Ta gordea baitautzut hobeki dut segurtatu.

Dagitzutan amarrua hartzen bada ogendun  
 Horrek jasanarazi gaitzak barkazkitazula,  
 Beldurrez eta lehiaz ama baten maitasun  
 Arhatzalek ukan lezaten agerrarazia.

Nuño, arrantzale gaizo bat, du aitatzat ustez:  
 Han etzelarik emaztea seme hilaz erdi  
 Baitzen, zurea zuen hartu hain ontsa ixilduz  
 Nun aitasemek ezpaitute geroa ikasi.

Amak berak eztaki 'ta hoin aldapen handitik  
 Badaki bakarrik eztela haren odoleko,

Ustez eskaintza horrek gertaldi bitxienetik  
Noizpait lerroa diola zur' eskuz itzuliko.

Dezazula horien gatik egun batez aithor,  
Et' Aragonak itzulirik zuen legetara  
Dakiela, jaiotzean ikusia baitut nor  
Den, Nuñoren seme Zantxok erret-odol duela.

ARAGONAKO HERNAN JAUNA."

#### 4. **Ædipe**

1659

Egitaldi III agerraldi I

Kirke Ædiperen arreba

Loria gose urrikigabea,  
Hire olde itsu bezain handiaz  
Herioa dezatak lehiaraz  
Dagon bizirik nitaz orhoitzea:  
Ephe zenbaitetan gibel ezatak  
Baitezpadako gutizia horrek  
Dematan sendimendu oldartua,  
Eta jasan egun triste 'ta deitoragarri huntan  
Eman bano lehen ene bizia  
Maitasunari hasperen demotan.

Ehadila beldur sugar hoin ederra  
Ausart dadin bihotz bat hiri nahiz  
Hartu, hire garratz ezaguneko denaz  
Geroz esklaboetan leialena.  
Ikharan behako nahasi hunek,  
Erakharririk utzi den on batek,

Hez dadin bera debekatzen eztu.  
 Murmurikan da egiaz eta urrikiz hezten,  
 Bana beharrez hortako ahalgez gorritu  
 Eniz gorderik baizik gorrituren.

Aiphamen horrek baduen distira  
 Segurtua herio hoin argiaz  
 Gutitzen da abantailen erdiaz  
 Maite denean eta maitatua.  
 Osoki nagusi den ohoreak  
 Badaduzka berak erabakiak  
 Dagitzazkon jaukizarren kontrara.  
 Haren legetan jarraikitzea zeinbat gozo den,  
 Bana bizian aski gozo bada  
 Maitasunak eder badu hautatzen.

Hi, haren garra lausenguz ausartu  
 Zizatan bozkario guziaren  
 Emaile, prinzea, penan haut uzten.  
 Zein ohoretara nauten bidatu,  
 Hire gana maitasun hain zuzenak  
 Behar duen itzul ahul haur ezak  
 Onhar, xamurtasun minberarena.  
 Banakusak hobiko hegira joaiten lasterrez  
 Uzten dauzkitan gaitzez izitua  
 Loria badagitanean hiltzez.

Hortaz loria badagit, bana gorde  
 Dut mukurrtu atzekabe gaitz,  
 Gutiziak oro ixilaraziz,  
 Bihotzak dagit bereganik joaite.  
 Prinze maitea, aithor horlakoan  
 Ikus badezakek sua zein dutan,  
 Ikusak nola bortxatzen den bera.

Hiltzen niz gogoa laño, ohoreak manatzen daut,  
 Bana lañoago nuken bizia  
 Bizi ahal izan banintz hiretzat.

## 5. Urrezko artilearen irabaztea

1660

Egitaldi IV, agerraldi II

Medea

Bakartasun zabal bezain geldia,  
 Zure jabal zorizkora zein auher hel dagitan,  
 Eta laket den penaren ohitza gustatuan  
 Ametseria zeinbat gaizki den sendagarria!  
 Zure harroken oinera hasperenez bakarrik  
 Nator, opa maitenetan enekin ekharririk  
 Neure' etsaietan beldurgarriena:  
 Nahiz hek menperagotu dauet obediagotzen,  
 Bikuntzen zait garra nik iraungiagotu nahia,  
 Are gehiago niz hor traditzen.

Auherretan bainiz asaldatua  
 Ikusten dut aldakor batek zer gaitzak dakhartzan:  
 Gogoa dudan, amorea urrikiz ikharan,  
 Haren maitatzen herabe, hiltzen niz maitatua.  
 Laket zait haren hutsegina eta nau beldurtzen,  
 Eskainiz aitzin ikusira, gibel dut egiten,  
 Haren alda laket zait ustegabe.  
 Itxaro eztienean aieru dut orotan,  
 Eta hisituki bihotz osoaren emaite,  
 Arrazoinak eztu nahi dagitan.

Arrazoin ordugaitza ixil hadi!  
 Mintza ordu dea bihotza eman dutalarik?  
 Nahi diokan onak uzkurra jenatu baitik  
 Hir' abisu hoberena zorigaitza zaik hari.  
 Haren gura jazarletan ezartzen dukan trabak  
 Phizten ditik, eta bera baderama zorteak.  
     Batzuen ganik nahi baduk zaindu  
 Hire indar hastioak lehiarazten ditik,  
 Eta zein gaitzek beharko duten ere beldurtu  
     Laguntzaz dakharzkiok aitzinetik.

Mintza hadila haren loriako,  
 Lege dagienari berriz emok lege zenbait,  
 Bortiztki har ezak bortitz garhaitzen hauen norbait,  
 Eta garhaita daukok garhaikin falsuz hartuko.  
 Ene bihotz osoa ebasten badauk amoreak,  
 Garhaile ozar hori ene sotik urrun emak,  
     Ebats ezok aurpegi hau guzia,  
 Eta neur' arimak gar biziegiak onhartzen  
 Baditik, salba ezak esklabotzetik ageria  
     Gorde den guzia baitauk ekhentzen.

\*

\*\*

\*\*\*

\*\*

\*

## II. Hamalarko eta b...

### Voiture-ren "Urania" ta Benserade-ren "Job" hamalaurkoez (1653).

1

Zaudete bakean, Abailari ta Mazarinak,  
Eztuzue Franziaren zatitzea merezi;  
Utzezue ohorea alderdi gotorreni  
Lerrokutzen baitituzte jazarle noblerenak.

Jobelinen kontra bildurik Urania gureak  
Gudian ari dira gogoia ontsa mutiri,  
Eta bururatu behar badu nola den hasi  
Gelfa berriak dirade 'ta berri Jibelinak.

Herri-gerla baterako xinaurri-hatz hutsala  
Zinituena zatikatzen gorrea ta hiria,  
Sukar mingarriak dauzkizuna bakeak hiltzen,

Geldirik egoitea zuretzat zeinbat den neke!  
Abailariak ikusten direnean erortzen,  
Bi hamalarkun gaitzentzat "Nor bizi!!" diozue.

2

Bi hamalaurkoek zatitzen hiria,  
Bi hamalaurkoek gorrea zatitzen,  
Dutelarik batean iduritzen  
Berphizten baitute herriko gerla.

Zozoenak artexenak bezala  
Argira du aburua emaiten

Eta haientzat amoretik zer den  
Batzuer daue berotzen kheldarra.

Bakoitza hortaz mintzo da goratik  
Aburu bereari jarraikirik.  
Eta beharrez hor gurea sartu,

Iduriz hobeki asmatu da bat,  
Hobeki ereman, hobeki urhent:  
Nahiago nuke bertzea ondu.

(?)

Ondo zurean maite duzu  
Egun guzietz nadin egon,  
Amorez adixkidetasun  
Dagitan dematazu manu.

Sobera duzu menturatu  
Jokaldi gaixto hori lagun,  
Bada hor anitz xorotasun  
Nadukazul' uste baduzu.

Hoin ederra den maitasun bat  
Ezta ezteuskeria zenbait,  
Nork bere nahira jostagai:

Nardatze zaizun maitasunak  
Ezta behar mailaz erori  
Hilen baitu ber' erorteak.

## Iriz-i

### 1

Estimatzen zitut Iriz, eta gaizkirik gabe  
 Errespetua aitor hoin goxora dezaket utz:  
     Egia bera da edozein orduz  
     Gogoan dutala zur' estimatze.

Idea gozagarri horrek daut arrazoina bete  
 Neure sensuak aurdikaldi batera bortxatuz;  
     Bana minetik ihesa nahituz  
     Dahatzat arrazoina dela lege.

Beraz bihotza zeinbatez zaitan ere nahasten  
 Hortarik jalgia ikustetik ez batere urren  
 Min horren arthatzea dut egiteko guzia.

Hortako griña maite dut, nahasmena gozo zait.  
     Ondikotz! Zer gatik ez ni estima  
     Berdina denean ezinegon bat?

### 2

Xoramen gutiagoz enekin balia zaite,  
 Sarri galduko nauzu hortan guardi ez emanez.  
 Zur' ikustea laket zait hortara menturatzez  
 Bana maitatzera bortxatze, hori eztut maite.

Neur' atsedanak halere asalda gai baduke:  
 Sendi dut eztakit zer zu ikusi ordu berez,  
 Griñarekin min dut hortarik berantze guziez,  
 Estimatu bano gehixago dena duda gabe.

Hutsik eztagizula: neure galpen ohoretik

Eztaike dagienari segurta ezklaborik.  
Xoramen orotarik badakit nola izuri,

Eta ez neure zaintzera bortxatu nautenean,  
Iriz ederra, zer dagitan duzua ikasi?  
Ihes dagit beldurrez amor eman.

## 3

Gostuko zait neure galpena 'ta zortea gozo.  
Edertza, begi-beharrien xoramen indardun,  
Zur' ondoan eman orenaz eniz urrikaldun,  
Gostatu dauzkit zu gabetan artha bezainbat lo.

Zure mira bekanez garhaitua hortarano  
Ikusiz, errex egiten dira bekhaizti ehun,  
Eta hasperena bihotzak hoinbertzetan galdun  
Eztagi baizik esku joilearen aphantzeko.

Harrazu neuretik irabazi duzunaz geroz,  
Errege batek loriatzat har lezakelakotz,  
Begi ederrenek ehoiz eztutena gaitzetsi.

Hortaz itzultzen dautzut, Iriz, zuzen den gizamen.  
Ondikotz! Irabazirik hori baduzu aski,  
Etzatazula gehiago ekhen!

## Bertsu

## 1

Kalixta, zu ikus orduan  
Erranen niza miretsia?

Guti da nik errana hortan  
Eta behar bada sobera.

Hobeki nuen argituren  
Bazinu lerro xipiago:  
Eder zirela dut ikusten  
Gizon bat izanez hortako.

Zer gatik ote zuk eztuzun  
Kalixta, edozeinen iduri!  
Oro nintzazuke maitasun  
Espazin' andere hoin handi!

Zure mail ohitik urrunak  
Maitatzalea nardatzen du,  
Et' adei ordu gabekoak  
Uzten hiltzera ederren su.

Ausartze laket zait apur bat  
Maitale badut egin nahi,  
Eta suharki maite badut  
Pherekuak maite handizki.

Bana baldin baninz ausartzen  
Zurekin ohointza gutira  
Ikusaraziko zinautan  
Neure herrixkako bidea.

Hiltzera dutzatala beraz  
Gaizkitan hartuko zen garra,  
Nahi ukan bano irabaz  
Neure meneko ezten gauza.

## 2

Ene xoratzea zer da zuretzat?  
 Aminta, maitatzea ezina zait  
 Deus eztakusatarik hartzeko.  
 Zur' ikustean garra sendi dut sortzen eta hiltzen.  
 Et' edertzarako arima beti badut mardo  
 Ehoiz eztut egiarentzat errespetua baizen.

Onhartzen nauzu gaitzespenik gabe,  
 Mintzo badagizut, idazpen ere,  
 Ikusten zitut nahi dutalarik:  
 Zorion horiek enetzat soberakinak dira,  
 Eta bertze batek bizi aski gozo badu hortik  
 Maita dezatantzat zerbait gehiago da beharra.

Maitasun handiena fagorerik  
 Gabe da gelditzen aski trixterik  
 Gizon bezala dutan omoreko:  
 Ongi debaldeko hori dezetala etsaier utz,  
 Eta bihotza dematanak bana ez gehiago  
 Zerbitza nindezake gehiago ez eman ez deus.

Maitale bat niz arruntetakoa,  
 Eztezakete hain gogotik maita  
 Ezpadute zerbitzuko saririk,  
 Ta nahi dut ordaintzeko so bat bano hobexago,  
 Gogoko batasunak eztu neuretzat gozagairik  
 Zati zenbait ezpaldin bada sentsuen xoratzeko.

**Maztrikt-en hartzeaz hamalaurdun**  
1673

Errege handi, hamahirur egunez hartu da  
Maztrikt, hir' egintza gorako mirakulu segur  
Ez harrigarria, ezpada zorizko jarraipen haur  
Hantzen duena heure zorte handien zuzena.

Holandak, bere dorren ondarretik dakustzala  
Lagunak lastiman eta bere fortuna makur,  
Nahiz xoilik esku suntsileari egin agur  
Heure ongieginak ditik helbide bakarra.

Itzuli zaikan giltz batek herri laur idekirik  
Hiri bat duk hartzen ehun prinze ikharaturik:  
Ezkautetik Iberurano lastura da jauzi.

Asaldan da oro, Imperioa hain gupidan  
Nun bidea hesten daukon bere arranoari  
Hegal bekaitza hitara itzultzen dikanean.

\*

\*\*

\*\*\*